

---

# IKERKETA: LANDA ELKARRIZKETAK

---

Helduak Zabaltzen (2023)



## Landa-elkarrizketak

*Gure egunerokoa kolektiboki eraldatzen*

# LANDA ELKARRIZKETAK

## Aurkibidea

NOLA ETA ZERGATIK SORTU DIRA ELKARRIZKETA HAUEK? .....	2
1. LANDA TESTUINGURUA: BIZTANLE KOPURU TXIKIA ETA ASOZIAZIONISMOA.....	3
2. AGZ-EN ROLAK ETA FUNTZIOAK .....	6
3. ZENTROETAKO EGUNEROKO BIZITZA.....	9
<b>3.1. Jarduerak</b> .....	9
<b>3.2. Boluntarioritza</b> .....	12
3.3. Kafetegia.....	13
4. GOBERNANTZA ETA PARTE HARTZEKO EREDUAK.....	15
5. ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIKO HARREMANA .....	19
6. EKONOMIA .....	22
7. ESPAZIO FISIKOA.....	25
8. ANIZTASUNAK.....	26
9. ERREALITATEAK ALDERATZEN.....	28
<b>1.1. Araba; Arabako Mendialdea:</b> .....	28
<b>1.2. Bizkaia:</b> .....	30
<b>1.3. Gipuzkoa:</b> .....	31
10. EREDU ALDAKETA.....	33
<b>11. I. ERANSKINA:</b>	
<b>ITZULPENAK.....</b>	<b>39</b>

## NOLA ETA ZERGATIK SORTU DIRA ELKARRIZKETA HAUEK?

Helduak Zabaltzen ekimenean, urtebete baino gehiago daramatzagu Euskadiko Adinekoen Gizarte Zentroei (AGZei) buruzko gogoetan eta zentro horien eraldaketan lan egiten. Gure lurraldeetako aniztasun orografikoa eta askotariko errealitateakj direla eta, prozesuko ikerketak/ekintzak bi etapatan bereizteko erabaki estrategikoa hartu zen, bata hiri ingurunean (2022-2023) eta bestea landa ingurunean (2023-2024) burutzeko. Hortaz, **landa ingurune**ko AGZen erronkei ekiteko garaia iritsi da bigarren urte honetan.

Landa ingurune


Hainbat landa elkarrizketaren bidez, kolektiboki erantzun nahi izan zaie garrantzi handiko zenbait galderari, eta lurralde bakoitzaren ezaugarri soziodemografikoak errespetatu dira elkarrizketetan. Landa elkarrizketetan, Euskadiko lurralde historiko guztietako AGZetako berrogeita hamar ordezkari eta parte-hartzailek baino gehiagok hartu zuten parte, eta ondoren adieraziko dugun moduan banatu ziren.



Adierazi beharra dago Araban, gainerako bi lurraldeetan ez bezala, ez zela lortu lurraldeko landa eremuetako ordezkari kopuru handia; hori dela eta, Arabako Mendialdea neurritz kanpo ordezkatuta egon zen Arabako landa elkarrizketan.

Lurraldearen arabera egindako bi orduko elkarrizketa kolektibo horien bidez, galderetan adierazitako erronka hauei erantzun nahi izan zaie:

Nolako zailtasunak dituzte zentroek landa eremuetan jarraitzeko? Zer aldaketa lortu nahi izango zenituzkete? Arazoak al dituzue belaunaldi berriek parte hart dezaten? Udalaren edo beste administrazio batzuen babesa duzuela sentitzen al duzue?



Ondoren, 2023ko Helduak Zabaltzen Landa Elkarrizketetan parte hartu duten berrogeita hamar ahots ingururen gogoetak eta analisiak azalduko ditugu, taldekatuta.

Pertsonen hitz egiteko eta beren gogoetak agertzeko aukera emate aldera, ideia horiek berak haien hitzekin islatzen dituzten testigantza batzuk agertzen dira testuan, elkarrizketen azterketarekin batera. Testigantzak jatorrizko hizkuntzan agertzen dira, eta itzulpenak eranskinean jasota daude. Parte-hartzaileen anonimotasuna babesteko, testigantzetan izen propioak erabili diren kasuetan beste izen batzuk ipini ditugu.

## 1. LANDA TESTUINGURUA: BIZTANLE KOPURU TXIKIA ETA ASOZIAZIONISMOA

Landa errealitateaz eta errealitate horri lotutako elementuez hitz egiten dugunean, herrietako biztanleen kopuru txikia da kontuan hartu beharreko faktore eztabaidaezinetako bat. Biztanle gutxi direnez eta landa eremuetan sakabanatuta daudenez, zeharkako bi fenomeno nabarmen sortu dira: alde batetik, parte-hartzaile gutxiko asoziazionismoa, eta, beste batetik, baserrietan edo eremuko gunetik urrun bizi diren pertsonen antolatzen jarraitzeko dituzten **irigarritasun zailtasunak**, zainketa beharrak edo mendekotasunak areagotzen zaizkienean. Faktore horiek elkarren artean berrelikatzeko joera dute, eta denboran eusten zaila den oreka bat sortzen dute.

«Bueno, ni, adibidez, pensatzen det nere buruk... Ni baserri baten bizi naiz eta dauket... ni ez det konduzitzen, eta hemendik, ba kilometro ta piko bat. Baino kriston aldapea dauket. Nik hemendik urte batzuan nere gizona ekartzen ez badit, ze ingo det? Baserrin egon egun guzti hor sartuta? Jo, igual ein beharko det. Edo bestela residentzi batea jun beharko naiz? Eta ni, adibidez, pensatzen det badarela, badarela moduk hori, ba irtenbideei bilatzeko. Adibidez, umeai, eskolara joateko

autobusa jartzen da. Zergatik ez gure edadeko, egun bat, bi egun o lo que sea, ba ekartzeko herrira? Gauza bat». (DRG, 2023)<sup>i</sup>

Landa elkarrizketetan esandakoetan ikusten denez, errealitate sakabanatu horrek agerian jartzen du bizi egoera jakin batzuetan parte hartzeko zailtasun handiak daudela. Sakabanatzeari aurre egiteko eta bereizita dauden eta biztanle kopuru txikia duten herrietan asoziazionismo sendoari eusteko arazoa nabaria da diskurtso guztietan.

“O sea, es otro tipo de esto, que también a mí me surgen mis dudas de que ese funcionamiento hasta cuándo va a durar. [Conversaciones superpuestas] en los pueblos, pues ahí están, queriendo hacer algo, pero es muy difícil, con 250 habitantes...” (DRT, 2023).

Landa inguuneko sakabanatzeak eta baliabiderik ezak, gainera, aurrez aurre jartzen dituzte landa inguruneko hainbat protagonista. Ondorengo testigantzetan egiazta daitekeenez, askotan gazteenen beharrak eta adinekoenak jartzen dira aurrez aurre.

“Yo, por ejemplo, pienso que existe, que existe esa forma, pues para buscar soluciones en la zona rural. Por ejemplo, a los niños y niñas, se les pone el autobús para ir al colegio. ¿Por qué no traer al pueblo un día, dos días o lo que sea ese autobús para las personas de nuestra edad?” (DRG, 2023)

Halaber, sakabanatzearen gaiak baditu beste alderdi solte edo arazo gehigarri batzuk, hala nola isolatze soziala. Errutina gabeziak eragindako isolatzearen arazoa handienetako bat da eremu horietan. Izan ere, adineko pertsona batzuek egunak eta, zenbaitetan, asteak ematen dituzte inorekin hitz egin gabe edota senide gutxi batzuekin baino ez, etxe barruan. Zehazki, hiri sakabanatze handia dago, eta, hari aurre egiteko, mugikortasunari erantzungo lioketen taxiak jartzeaz gain, *bizitza komuna* sortuko duten errutinak eta ordutegiak antolatzeke beharra planteatzen da. Premiazkoa da **errutinak eta jarduerak egituratzea, jendeak ohitura berriak har ditzan, eta bere baserritik edo beste bizitoki batzuetatik irteteko eta bizitza partekatzea ahalbidetuko dion lekuren batera mugitzeko arrazoiak izan ditzan.**

“Sí, lo nuestro... A ver, nuestro pueblo tiene cosas muy específicas que tenemos que aprender a nadar en esa piscina, ¿no? Porque, eh, por ejemplo, no tiene ningún edificio de pisos. Eh, entonces, la gente mayor vive en el caserío, en casas aisladas y es muy autónoma. O sea, no está buscando “a ver si salgo a leer el periódico y tomo el café en la plaza” y cosas de estas. Con lo cual, la demanda que pueda hacer de, hacia afuera... Pues, bueno, hay que matizarla. Luego, el otro tema que tiene también, pues que lo hace, es... Está a 3 km del centro del pueblo-ciudad más cercano. El ayuntamiento en su momento puso taxi para la gente mayor dos días a la semana: lunes, que hay plaza, y el viernes y no sé qué. Bueno. El ayuntamiento ha promocionado cosas, pero abiertas, o sea, no específicas, ¿no? Pero, bueno, que si pilates... El gimnasio, por ejemplo, conseguimos que no cobrasen para los... mayores. Algunas cosas de este tipo, ¿no? Pero no hay una actividad específica o estructurada “pensando en”. Entonces, bueno, pues esa es la... Esa es nuestra necesidad.” (DRB

2023)

Landa eremuko parte-hartzearen eta asoziazionismoaren gaiari lotutako beste ezaugarri bat da **landa inguruneetako pertsonen ehunekoak ez duela inolako zerikusirik hiri inguruneetako pertsonen ehunekoarekin**. Zehazki, adinekoen elkarte batek ehun bazkide baino gutxiago izanik ere, baliteke udalerriko biztanleen ehuneko berrogei izatea. Eta ehuneko berrogei izanik, **askotan haientzako baliabide edo zuzkidura publiko espezifikorik ez dagoela ikus daiteke**. Izan ere, toki administrazioek landa eremuetan duten baliabide urritasunaren aurrean, adinkeriaren ondorio izaten dira erabaki gehienak. Hori dela eta, inbertsio ekonomikoa adinekoei laguntzeko erabili ordez familia berrietara bideratzen dela sumatzen da.

“En este momento, la asociación, pues, eh, tiene 70 personas, pero esto supone, prácticamente, entre el 25 al 30% de la población de nuestro pueblo. Es un pueblo pequeño, no llega a 400 habitantes (...) No tenemos un local propio, porque tampoco el tipo de actividad pide, pero sí que tenemos a disposición, pues la, esto, como esto, la sala de cultura del ayuntamiento.” (DRB, 2023)

**Arabaren** kasuan, azpimarratu beharra dago sakabanatzea **askoz handiagoa dela, eta errepide zabalen bidezko komunikazioa, berriz, urriagoa**. Jarduera gehienak egiteko, ibilgailu pribatua erabiltzen dute, bai Araban, bai gainerako landa eremuetan. Beraz, **baliabide eta ahalmen propioekiko mendekotasun handia dago eremuko jardueretan parte hartzeko garaian**.

“Y aquí también en coche, a no ser que, por ejemplo, cuando se hacen las aulas de la tercera edad, ¿vale?, la asociación de jubilados colabora con las aulas de la tercera edad. Entonces ahí sí que... a ver, la última vez que se hizo no se puso transporte, pero porque no salió gente, entonces los pocos que venían, venían en su... en su propio vehículo. Pero bueno, este año, por ejemplo, no hemos hecho ahora charlas de las... o sea, solemos empezar más o menos siempre el Jueves de Lardero...” (DRA, 2023)

Salbuespenezko kasuetan, eta aldian behin, laguntza eskaintzen da, baina ez da denboran dirauen azpiegitura publiko estrategiko bat, aldizkako baliabide bat baizik:

“Y este año sí que hemos traído a los del centro de día, o sea, los que van al centro de día y también los que conviven en la residencia comunitaria, en el...”

- *Moderadora: Y cuando dices los traemos, ¿cómo es ese los traemos?”*

- Bueno, los hemos, con el... con el... hemos pedido para que les vengán con la ambulancia, ambulancia no, el autobús, el autobús adaptado” (DRA, 2023).

## 2. AGZ-EN ROLAK ETA FUNTZIOAK

Ikus daitekeenez, AGZen hainbat definizio daude euskal lurralde osoan. Anbibalentzia hori, ondoko lerroetan egiaztatuko dugunez, zentroetan zein bertan lan egiten duten profesional teknikoengan agertzen da, baita administrazio publikoetan ere. Ondoren, definizio horietako bakoitza, duen indarra eta dakartzan ondorioak deskribatuko ditugu.

Oso zabaldua dagoen definizio baten arabera, AGZk aisiako guneak dira, ongi pasatzeko eta jendearekin egoteko. **Asia partekaturako eta elkartzeko gunearen rola betetzen duten AGZen** definizio hori da gizartean zein zentroetan gehien onartuta eta zabaldua dagoena. AGZen rolaren definizio horrek atsegina, astialdia, dibertsioa eta elkartzea ditu ardatz.

“...que es un centro donde el objetivo también es pasárselo bien; relacionarse socialmente y pasárselo bien.” (DRT, 2023).

Eredu horretan, aurreko lerroetan egiaztatu ahal izan dugunez, elkartzeak zeregin estrategikoa du landa eremuetan, **hiri sakabanatze** handiko lekuak baitira. Beren etxe handietatik irteteko eta gune partekatuetan elkartzeko baliabideak eta jarduerak behar dituzte.

“Hombre, es un centro de... de convivencia, te juntas con otras personas y...  
- Encuentros.  
- Te encuentras.  
- Encuentros, encuentros.” (DRA, 2023).

Badago AGZen funtzio edo rol estaliago bat, pixkanaka indarra hartzen eta azaleratzen ari dena: AGZen definizioa **zainketa komunitarioetarako eta pertsonen berdinen artean bizitzen laguntzeko espazio** gisa. Bizitzaren aldi horretan laguntzeko rola betetzen duen espazio komunitarioa.

“Un espacio comunitario que tiene una característica, que es que va dirigida a las personas mayores, con todo lo que eso significa de amplio, y bueno, donde pueden relacionarse, socializar, realizar actividades... Bueno, contribuir un poco a que este periodo de su vida, en el que, lógicamente y probablemente, dispongan de más tiempo libre, pues lo puedan, no sé si la palabra es canalizar, pero optimizar o desarrollar...” (DRT, 2023).

“Que las personas, entre comillas, necesitadas, pues la calefacción es muy cara, la soledad... Entonces, bueno, pues hay un grupo que pone la calefacción a las 12:00 del mediodía en el hogar y luego vienen, pues de... a jugar a cartas.” (DRG, 2023)

Bigarren kasu horretan, **askoz parte-hartze handiagoan eta herri eraldaketan oinarritutako** rol baterako eredu aldaketa bat ikus daiteke. Eredu berri horretan, ongi pasatzea eta jarduerak egitea ez da funtsezkoa, eta beste kontzeptu batzuk dira ardatza, hala nola *transmisioa, belaunaldiartekotasuna eta parte-hartze komunitarioa*:

«Gu zentro nola ez daukegu; hau da, Zeraingo kultur etxea, ni, pues... hauek esan duena, pues gurea ere bada, baino gehituko nuke gustatzen zaigula pensatzea oinik

daukegulaasko emateko eta, adibidez, ba transmisioei buruz, ez? Asko lantzen degu transmisioa. Gu lan zuzena eitten degu eskolako umekin, daukegu programa bat beraiekin landuta eta hilero ekintzabat eitten deu, eta ustet guretzako hori balio haundie daukela, zea, oindik aportatzeko, ez da bakarrik elkartzeko edo igual hori da zeatik ez daukagu zentro bat nun elkartu, ez? Baina bueno, baita saiatzen gea elkartzea gure jendekin eta... ez dala errex. Bueno». (DRG, 2023)<sup>ii</sup>

“Eh... participación así vinculado con las transmisión que podemos dar los mayores, la verdad es que no tenemos, pero ayudar ayudamos mucho. Entre limpieza de río, limpiar los montes para las maratones, trabajar... Nosotros trabajamos”; “En el centro que teníamos, allí sí que teníamos, pues los chavales venían a cantar al centro de día, nosotros estábamos al lado... Ahí había más vínculo. Hemos estado con la pandemia, no pandemia y mal... Y ha habido muchas cosas que se ha... que el rol ese del hábito se ha terminado. Pero bueno, en fiestas participamos, eh, cuando pasan Korrika... Te quiero decir, participación mucha en el pueblo, pero lo que decía ella, mira, eso no.” (DRG, 2023).

Edonola ere, kontuan hartzen da elkarren arteko laguntzaren, zainketa partekatuen eta abarren gune komunitario horren ikuspegia ez dela ikuspeirik zabalduena AGZetan. Rol hori aitortzen eta adierazten duten gehienak gazteenak dira adinekoen artean, zentroko batzordean eta bizitzan oso aktiboak direnak, adin handiagoko belaunaldiei laguntzen dietenak, eta haien ongizatean pentsatuz hainbat ekintza eta jarduera abian jartzen dituztenak. Beraz, ikus daitekeenez, **aitortzen da batzuek besteei laguntzeko rol hori, baina ez da elkarrekikoa, adinekoen belaunaldi batzuen eta besteen arteko elkartasun bidezkoa baizik**. Beraz, beste adineko batzuei «laguntzearen» bizipena dago; ez, ordea, gune horietan «lagundua izatearen» ezein aitopenik.

«Bueno, e, nik esandot, e, heldu berriak garala, oraintxe bertan, eta bueno, guri argi itzizkuen aurrekoak, ba bueno, hor badala talde bat, e, jubilauna, herrian, esan dot 78 garella apuntauete, eta guk argi dekogu gure helburua jente zarrari laguntzea dala». (DRB, 2023)<sup>jii</sup>

«Horrek esan nahi du baserri asko daudela aparte, herritik aparte daudela. Ordun ia bi ein dittugu. Auzo bat hartzen deu ta jute geaetxez etxe, atez ate... eta beraiekin eote gea, argazki batzuk ateatzen ditteu, hitz egin pixka bat eta... eta zein bizi dan, zeatik nik beste auzotako asko ez dittut... ez dakit zein diene, eta etxen izenak ere ez, pentsa, aparte daudenak. Eta bi in ditteu ya, eta bikin jendea oso oso gustoa geldittu da. Ez gea jun autobuska harea, ba igual jun gea, ba eztaikit, 12-14 pertsona, eta... ia aurki... datorren hilen beste auzo batea juteko asmoa deu baita ere. Jakitteatik etxen izenak, argazkik ateatzeiteteu gero eta beraiei emateiu, eta adineko adinekoen bat baldin badao, zeoze ematen diogu eta beakin eon eta... gustoa eoten die, oso gustoa. Igual eztaia herria juten, eztaia jaisten igual herria». (DRG,2023)<sup>iv</sup>

Bizitza komunitarioaren euskarri den gune hori ikusteko erreparoen atzean, zainketen edo elkarren arteko laguntzaren beharra aitortzeko zailtasunak daude. Bizitzaren edozein unetan kostatzen bazaigu Laguntzaren beharra onartzea; are gehiago bizitzaren aldi horretan. **Bizitzaren une horretan batez ere, autonomiarik ezarekin eta mendekotasunarekin lotzen da zainketen beharra, gizartean nagusi den adinkeraren ondorioz.**

Hori dela eta, askotan **alde batera uzten da AGZek elkarren arteko laguntza eta zaintza komunitarioarako gune gisa duten funtzioa, eta aisia eta atseginerako zentrotzat soilk hartzen dira**. Beharrik handieneko adinekoenganako belaunaldiarteko elkartasun



naturalizatu bati lotutako ekintza dela uler daiteke, baina elkarren arteko zaintzaren ideia («Adinekoen Gizarte Zentroan zainketak eman eta jaso egiten ditut») oso ahula da oraindik.

“La percepción que puede tener la gente más joven igual puedeser que ahí van las personas mayores, la palabra *vieja* no me gusta, pero es lo que se... es lo que [ininteligible] personas mayores y, buah, solamente juegan a las cartas. No hacen nada más. Entonces, bueno, pues se pierde todo el contenido, bueno, pues de espacio comunitario dondese relacionan y desarrollan su vida, yo creo. Yo creo que cada vez menos, eh, pero sí que todavíaesa percepción, yo creo que sí que existe.”  
(DRT, 2023).

Beste kasu batzuetan, AGZk **herria dinamizatze**ko rola duela eta herriko gainerako elkarteekin koordinatutako oso aktibismo markatuko gunea dela aitortzen da. AGZk eramaten dituen elkarteak eragile komunitarioa eta herrikoia da, gainerako elkarteekin harreman eta koordinazio estua duena.

«Nirea oso herri txikie da. 300 biztanle edo gara... Bueno, ni enaiz bizi hor, e, baino bueno, alboko herrien. Orduen, e, guk badekogu hartuemonu udaletxeagaz eta badauz beste bi elkarte, bata da mendi elkarte bat etabestea da jai batzordea, eta orduen, lauron artea, ba herriko... ba... gauza puntualak antolatzen doguz, ba eztaikit, San Juanetan sardinada bat, e, San Pedroetan, eh... Ba eztaikizer. O sea, ta hori dana iten dogu lau elkarteak alkarregaz, orduen, ba bueno... Helburua da, ba hori, herria dinamizatzea eta gure, guk konkretuki, helduen mailan edo helduen, e...». (DRB, 2023)<sup>v</sup>

AGZe esleitzen zaizkien jokatzeko modu eta definizio edo funtzio ugarien aurrean, zaila da administrazio publikoko pertsonentzat eta, oro har, herritarrentzat garbi edukitzea zer diren eta zer ez diren zentroak, eta zertarako funtzionatzen duten. Horrek askotariko suposizioak, iritzi subjektibo asko eta zentro horiek tratatzeko modu ugari sorrarazten ditu, administrazio funtzioaren ardura duen pertsonaren arabera.

Ikusi denez, teknikarien ideia nagusia aisiarako eta elkartzeko guneara da, zahartzeko aktiboaren bidez bizitzaren fase horretan dauden herritarrak entretenitzen dituen gune batena. Hala ere, elkarrizketatutako gainerako profiletan bezala, zentroen ahalmen komunitarioaren hainbat aipamen egiten dira, baina gainerako elkarrizketetako diskurtsoetan baino modu irregularrago batean eta ez hain modu bateratuan. Zentzu horretan egin diren aurrerapen irregularren eta gizartearen rol horretaz duela gutxi jabetu izanaren ondorioz, seguruena.

Aisia rolaren nagusitasun nabarmenaren ondorioz, **idea mamu bat dabil AGZen inguruan. Elkarte baten jarduerak baino kudeatzen ez dituzten gune pribatuak diren ideia, alegia.** Inertzia tradizionalen eta beste eredu komunitarioago eta lankidetzan oinarrituago batzuetarako trantsiziorik ezaren ondorioz, ikuspegi horietan oraindik ez dago erabat txertatuta guneak izan dezakeen helburu sozial eta komunitarioa.

Udal teknikari baten ondorengo gogoetan lerro artean irakur daitekeenez, klub pribatu edo txoko bateko jarduerak egiten dituzten elkartei ekipamendu publikoa eskaintzeko eta, hortaz, baliabide publiko bat pribatizatze beldurra dago askotan.

“Teníamos todo en un mismo centro: centro de día, hogar del jubilado, el médico... Todos estaban en un centro polivalente, digamos. El centro de día ha habido un

umento, ha tenido que trasladarse a este lugar. Los del hogar han tenido que pasar a otro local, y ahora pues están en... Bueno, el ayuntamiento va a ponerles un local, pero claro, estamos en trámite... Entonces, eh... Ellos están venga a pedir que hay que tener un local nuevo, tienen que tener un local nuevo para tenerlo, pero claro, ¿el objetivo de ese local qué va a ser? O sea, qué... ¿Va a funcionar como hasta ahora de asociación?, de... elkarte quedaríamos aquí.” (DRT, 2023).

Aurreko testigantzan ikus daitekeenez, nolabaiteko **eredu anbibalentzia bat da nagusi, gizarte zentroaren ereduaren eta sozietate pribatuaren ereduaren artekoa. Anbibalentzia horrek zalantzak sortzen dizkie administrazio publikoei.**

“Es un txoko. O sea, la cosa es que, en ese txoko, según qué horario hay unas actividades. Pero claro, también a comer. Algún sábado igual, “pues oye, vamos a hacer una comida, tal, pues yo con mis familiares y hago una comida. Lo reservo y lo hago”. Entonces, es medio txoko, medio asociación... para definir es un poco difícil. Si les preguntamos a ellos es una asociación, pero yo cuando veo a, que no pasa muchas veces, pero cuando pasa... al final, la limpiadora va del ayuntamiento. “Yo que he ido y que, uf, había mogollón de platos, tal...”. O sea, han hecho una comida y me parece muy bien. Claro, es que... es que es, en plan, una sociedad, pero claro, dónde lo encajamos, ¿no?” (DRT, 2023).

Hortaz, ekipamendu publiko guztiekin gertatzen den bezala (pilotalekuekin, kultur etxeekin eta abar), gerta daiteke horiek behar bezala ez erabiltzea eta talde txiki batek soilik erabiltzen duen entretenimendu gune bihurtzea. **Behin eta berriz adierazi denez, erabilera anbibalentzia horrek murriztu egiten du adinekoei zainketa informalak emateko, radar funtzioa betetzeko eta gatazka zein ahultasun egoerak detektatzeko ahalmena.**

## 3. ZENTROETAKO EGUNEROKO BIZITZA

### 3.1. Jarduerak

AGZetan egiten diren jarduerari dagokienez, oso alde handiak daude hiri inguruneko AGZetan egiten direnekin alderatuta.

**Jarduerak irekiagoak izaten dira eta AGZen barruan zein kanpoan egiten dira;** zenbaitetan udalerriko hainbat lekutan, ez beti zentroan, alegia. Zenbaitetan, espazio fisiko propiorik ez izateak bultzatzen du horretara, eta ohikoa izaten da Udalaren gune komunitarioak erabiltzea (erabilera anitzeko ikasgelak, kultur etxeak eta abar).

“Nosotros en concreto tenemos... es un, diríamos una sociedad, ¿vale? Está en un edificio donde todo el edificio y la [ininteligible] es del ayuntamiento... y bueno, diríamos en la primera planta está el hogar de los jubilados, y es una sociedad”. “Pero sí es esa sociedad, pero luego las actividades son en todo el pueblo, incluso en la comarca o van de excursión a Álava a no sé qué bodega o hacen no sé lo qué. O sea, luego... O sea, no tiene nada que ver, porque los ensayos también los hacen ahí de Kantujira, que luego salen todos los jueves de la última semana del mes.” (DRT, 2023).

**Landa inguruneetako AGZen jardueretako asko belaunaldiartekoak** eta jende mota ororentzat (elkartekoentzat zein kanpokoentzat) irekiak **izateko joera bat dago, edo horren naturalizazio bat**. Joaten diren gehienak adinekoak badira ere, jarduera gehienak hainbat belaunaldirentzat irekita daude, zentro batzuetan izan ezik. Era berean, mugikortasun handiagoa dago belaunaldien artean eta herrien artean jardueretara joateko garaian.

«Gauza rarue, baina herrixen pixkatxu bat martxa ipintzen dugunak gehixenbat geu gara. Bai. Eskursinok antolatzen doguzenak. Eta, e, gu sartu garenetik behintz... edo ni sartu naizenetik, behintzat, ez dogu begiratzeko «ene, zu elkarteku zara ta etorri al zara, eta zu ez». Esan g... Ez, etorri nahi daben guztixek etorri daxela. Hasieran bai esate genun: «Bueno, ba gehixuo kobrakotzau», ze klaro, ba dirulaguntzara [ulergaitza]... Eta azkenien, ba etorten dian jentin kopurue ikusitxa, ba ez tala askorik, eh... Hori esan genun: «Bah, a ver, badaukeu dirue, emoteozku dirue, ta, hala, ezta holan gauza nabarmena...», ba berdin kobratzendogu. E, antolatzen dogu ginasia ikastarue edo, urte guztixen, bueno, udan izan ezik eta harabeherriko edonor etorri ahal da. E, bueno, gero belaunaldin arteko [ulergaitza] tailerra ta itxen doguz bebai, e, omenaldixek 90etik gorakuei... Egite doguzen ekintzak, horrek behintzat die herrixe guztixentzat, bai». (DRB, 2023)<sup>vi</sup>

Ikus daitekeenez, herrien arteko mugimendu handia dago jarduerak antolatzeko, eta ez da modu posesiboan jarduten, hiri inguruneke zenbait AGZtan ez bezala, «dena nire zentroan egin behar da» dioen ideiari jarraikiz.

«A, bueno, guke [elkarrizketa gainjarriak] eta atzo, esateot, euki genun, e, sendabelarren eta ikastarue, eta han... adin guztiz [ulergaitza]. Da alboko herrixetakuke bai». (DRB, 2023)<sup>vii</sup>

Jardueretan adin desberdineko pertsonak (bazkideek zein bazkideak ez direnek) parte hartzeak aniztasuna eta dibertsioa areagotzen dituela uste da.

«Ordun, talde asko dauz, baine ez tirez talde itxiak. Guk, e, adibidez, e, zuk esan dozuna pentsatzen dot, eskursinoak eiten doguzenin eta horrela, ba bueno, lehentasuna geuriek direz, ezta? Baina, beti sobratzen da edo lekue dao geixagontzat, ordun etorri ahal direz gaztiauak diezenak edo dana dalakoa. Berdin kobratzen degu, zeren eta lagundu itten daue autobuse eta gauzek ordaintzen, eta gainera anbientie da, e, jostagarrixagoa edo ez tait zer esan ba, poz haundi baten gara gaztiauagaz, gaztien, ezta? [Elkarrizketa gainjarriak] Hori da. Etakobratzen dogu bardin, ze, oain, lagundu eitten dabe ta dana dalakoa. Eta gero ekintzak azaldu behar doguz, egiten doguzena. Ba egiten dogu denetarik». (DRB, 2023)<sup>viii</sup>

Azpimarratu beharra dago **jarduerak oso ikuspegi inklusiboa izaten dutela**. Herri txikiak jarduerak funtsean «nahierara» egiten direla eta pertsonalizazio maila handia dutela aipatzen dute. Pertsonalizazio maila hori ez da harritzekoa. Izan ere, 200 biztanleko herri batean, denek elkarren izen-abizenak ezagutzen dituztela kontuan hartuta, oztopo jakin baten ondorioz jarduera batera joaterik ez duen inor badago, oso nabarmena izaten da denentzat, eta ahal den neurrian hori sahiesten edo egoera horretara egokitzen saiatzen dira.

«Urteerak, urteerak eta sarritan a la carta. Ba aukera asko emon. Ba herrian eon, bueno, ba... baten batek bixita ezin bado egin, ba beste aukera bat [ulergaitza]. Aukerak eman beia, bestela». (DRB, 2023)<sup>ix</sup>

Sentiberatasuna dute jarduerak, eta, proposatzen direnean, pertsonen laguntza beharrak hartzen dira kontuan. **Jarduerak pertsonen egoerara eta laguntza beharretara egokitzen dira.** Horrek agerian uzten du, aisiari eta soziabilitateari lotutako funtzioa ez ezik, zainketei eta laguntza informalei lotutako funtzioa ere badutela, besteak beste mugikortasunari eta dibertsitate funtzionalari lotutako arazoak dituztenei eta etxetik oso gutxitan irteten diren antzinako bazkideei laguntzeko. Era berean, **radar gisa funtzionatzen** dutela diote; esaterako, baten batek luzaroan seinalerik ematen ez duenean.

«Baina, ordun, ba saiatzen gara herriko, e, bueno, ba hoixe, edo [ulergaitza] edo urte egunetan eta hori, ba ipinten jente nagusixe batezbe, eta gainera, ba a ver, eureri gonbitte berezixe eitten, ba etorri... eta jo, oso pozik gainera. Es que pertsona nagusixek ya itxi dabe, batzuk behintzet, mezetara juten be bai. Herrire urteten bebai. Ordun, ba egun horretan, eta nagusixenak da... “Ene, etzaitxut ikusi hainbeste denboran, eztakizer, baden hor...” . Eta jo, ba asko pozten direz, hori ikusi itxen dozu eta ordun saiatzen gara hola, e, ba herrixen bertan eitten gauza gehixau ba alkartu daitxezen nagusixen arten». (DRB, 2023)

«Guk COVID denporan... A ver, guk beti itten dotsegu 90 urtetik gorakueri Gabonetan 30 €-ko zesto bat, etxien dauzenak, gaixorik, urteten ez dabenezako, eta horri. Eta orduen, ba etxera joaten gara eta emoten dotsegu. COVID denporan, ba hori, e, udaletxeri azaldu in gentzen eta, bueno, ba eurek esan gozkuen “Bale”, geugaz bat eittebela, eta ordun 80 urtetik goraku... 85 urtetik gorakueri, eztakit, 80 edo 85. Eta ein gendun erdi bana, hori bai. O sea, ba daneri, udalan ixenien eta nagusixen elkartien izenien...». (DRB, 2023)

Bestalde, COVID-19ak eragindako geldialdiaren ondoriozko gogoeta bat jaso dugu, **produktibitateari, gaitzari edo jardueren gehiegizko produkzioari** buruzkoa. Izan ere, elkarteko pertsonak jardueren gaitzari jasaten ari ote ziren edo pandemiak jardueren planteamenduan eragin handia izan ote duen aipatu da.

“Sí que es verdad que antes de la pandemia había, bueno, pues colaborábamos, teníamos nuestro programa [ininteligible], es decir que teníamos o había mucha actividad, durante todos los meses de invierno, pero la pandemia supuso un parón como en todos los sitios, y luego sí que se ha recuperado, pero no está recuperado... o sea, no... igual la palabra no es la “intensidad”, sino ese ritmo. Entonces, yo creo que nos hemos dado cuenta todos, pues la asociación, allí [ininteligible] trabajando con esta asociación, que igual estábamos sobrecargando demasiado. Entonces, bueno, pues ahora lo que hacen es picotear un poco de diferentes temas que les puedan interesar, lo que has comentado: salud, alimentación, informática... entonces son cositas más reducidas.” (DRT, 2023).

Jarduera asko antolatzearen ideia horrekin lotuta, zenbait udalerritan udalarekin duten —eta beti harmoniatsua ez den— harremanari buruzko gogoeta egin da. Ikusienez, Udalarekin jarduerak lantzea honako ideia honi lotuta ikusten da zenbaitetan: «guk jarduerak egiten ditugu, eta Udalak haiek egin ahal izateko baliabideak ematen dizkigu». *Guk eta haiek* nozio horren ondorioz, Udalak jarduerak antolatzea kontraprogramaziotzat hartzen da zenbaitetan. Edo, beste era batera esanda, jarduera horiek AGZrenak dira, eta Udala, nolabait, jarduera horiek kentzen ari zaielako ideia nagusitzen da. Benetan kontraprogramatzea al da udal batek AGZk egin nahi zuen zerbait egitea? Ideiak lapurtzea al da? Ala norabide berean lan egitea eta lankidetzan jardutea?

«Harremana daukeguna da udalakin, ta hori konpontzeko, ba... Ea guk hau formatu gendunean, esantzuten zerbitzu hoiak badare udalerrian, ta udala gauza bat da. Udalaneztau zentralizatzetik dena, ta udaletik ezin do esan “zuk hau in biezuko edo hemendik pasa biezuko”. Enten utzi behar dio libre, eta hemen lehen kultur etxe bat bazeon, e, entea zan librea, bueno, “librea”, bagendun babeska udaletik, baino zan junta bat, hemen ite zien gauzak... Oain jubilatunaiten degun bezela baino gazteagonea eta gauza gehiagotan parte hartu. Ba hori ere erakarri, eraman zuten udalera, ente hori... Izena jartzen dute, baino dana handik eta guk ezteu nahi gurea handik... Nahi deu gu. Ta harreman hoi ezpadeu ondo zeatzen, ba ibiliko gea, ba... Haiek eskursiobat, guk beste bat; guk holako hitzaldi, eta eztaikit zer; batzuk hau, bestiek hemen... Gu juntan, e, zeatuta dexente gaude, zemat gaude?». (DRG, 2023)<sup>x</sup>

Hori dela eta, gehienetan, **AGZetako batzordeek bakarka antolatzen dituzte jarduerak**. Zama hori dute gainean. Administrazio publikoek babes ekonomikoa ematen dute, baina AGZek proposatzen, antolatzen eta garatzen dituzte ia oso-osorik. Gero baliabideak bilatzen dituzte udalerrietan, kooperatibetan, aldundietan edo Eusko Jaurlaritzan, aukeren arabera.

“La asociación realiza las actividades que considera interesantes y luego, desde las otras entidades, eh, se les proponen pues diferentes actividades que no están [ininteligible] o que se pueden hacer, y bueno... es un poco una mezcla de las dos [ininteligible].” (DRT, 2023).

### 3.2. Boluntarioritza

Oso leku zehatz batzuetan, **jarduera gisa** jasota dago **boluntarioritza**, eta, gutxiengo baten kontua bada ere, merezi du jarduera espezifikoko gisa nabarmentzea. Zainketak behar dituzten pertsonak zaintzeko jarduera da boluntarioritza horren ezaugarri bereizgarria, eta AGZek askotan egiten duten lan soziala islatzen du horrek.

«Ba gu, en el pueblo, asten behin itten gindun, centro de día zeudenon, atera egualdi ona baldin bazeon...». (DRG, 2023)

AGZen elkarteek autoantolakuntzaren eta detekzioaren bidez **landa eremuetako bakardadearen aurka** egiten duten lana nabarmendu da. Zenbait kasutan, boluntarioritzaren bidez, beste kasu batzuetan, berriz, modu informalean. Eta, zenbait udalerritan, 2030 Agendari buruzko gogoeta hartu da abiapuntutzat, guztiari lekua emateko.

«Guke proiektua, geure herrian, sortu gendun udalan plan estrategiko... 30, 2030eko hortan intzun deialdi plurala herrin ta jun ginen gu herrin ze arazo zeuden azalduz, ta gu jun giñan ba... guk azaldu gendun ze arazo zeon bakardadena, eta hortik atera zan, ba berezietako bat, zala hortan saiatu beharra. Ordun, udalak ere lortu du diru bat ta daukeu ya, teknikari bat daukeu hortan lanen ai dana. Horrek laguntzen digu, ba klaro, zeuk esan dezu, zailedala etxien bakarrik bizi dianak eta... Baino, ai gea...». (DRG, 2023)

«Ba hori, Pilina exitoa iruitzen zait egia esanda. Guk baita ere dakeu, mmm, ia

planeatuta, zortzi auzo desberdin ditugu herrian. Zortzi. Horrek esan nahi du baserri asko daudela aparte, herritik aparte daudela. Ordun ia bi ein dittugu. Auzo bat hartzen deu ta jute geaetxez etxe, atez ate... eta beraiekin eote gea, argazki batzuk ateatzen ditteu, hitz egin pixka bat eta... eta zein bizi dan, zeatik nik beste auzotako asko ez dittut... ez dakit zein diene, eta etxen izenak ere ez, pentsa, aparte daudenak. Eta bi in ditteu ya, eta bikin jendea oso oso gustoa geldittu da. Ez gea jun autobuska harea, ba igual jun gea, ba eztaikit, 12-14 pertsona, eta... ia aurki... datorren hilen beste auzo batea juteko asmoa deu baita ere. Jakitteatik etxen izenak, argazkik ateatzeitueu gero eta beraiei emateiu, eta adineko adinekon bat baldin badao, zeoze ematen diogu eta beakin eon eta... gustoa eoten die, oso gustoa. Igual eztaia herria juten, eztaia jaisten igual herria». (DRG, 2023)<sup>xi</sup>

Aipatu dutenez, biztanle kopururik handieneko herrietan errazagoa da boluntariotza sendo bat antolatzea, baina betikoak dira jarduera guztietan parte hartzen dutenak eta dena antolatzen dutenak. Horrek agerian uzten du boluntariotzaren garrantzia:

- “- Nosotras no podemos hacer como hacen en Ordizia y en Beasain. Pero esos ya son grandes, pero... Voluntariado ya hay, eh.
  - Sí, pero nosotros somos pocos y siempre los mismos...
  - Por eso, muy difícil, muy difícil...
  - Pasa eso. Que el voluntariado siempre son los mismos, porque la gente que es voluntaria, pues está también repartiendo comida, recogiendo comida, eh... hace mucho voluntariado. Eh... no sé qué iba a decir.” (DRG, 2023).

Azkenik, hona hemen detektatu den fenomeno garrantzitsu bat: **familia jakin batzuek beren adineko senideek edo mendekotasuna dutenek AGZen elkartean laguntza jasotzeko aukera baztertu izana**. Zehazki, asoziazionismoak dituen zailtasunetako bat baserrietako familien errezeloei lotuta dago; hain zuzen, elkarteek beren adineko senideekin lan egiteko dituzten errezeloei. Errezeloen arrazoi nagusia zer esango duten eta beren espazio pribatua inbadituko duten beldurra da, pentsaraz lezakeelako familiak pertsona horiei laguntzen ez dielako ari zaiela elkarte bat laguntzen.

Zenbait kasutan, zerbitzuei uko egin zaie, familiek ez baitute onartu nahi bakardade egoera bat dagoenik, **familia salatu eta estigmatizatuko dutelakoan**. Herri txikietan, salatua izateko ideia horrek eragiten du beldurrik handiena, «nire adinekoa zaintzea nire intimitatearen parte da, nire ardura da eta egoerari aurre egiten ez dakigula leporatzen ari zara» pentsatuta.

- «—Oso, oso zaile. Hoiek erakartzea da oso zaile. Oso ondo jasotzen zaittu, zu jutentzea, agusto eoteie, baino hoiek erakartzea eta taldetxo bat sortzea, gero hain gustoa eongo liekenakin, e, baino hoik gerturatze hori... eta ez dakit dan beraien arazoa bakarrik edo ingurukoek ere ez dittun apoiatzen. Benetan.
  - Ingurukona. Guk ikusi ditteu, [entzungaitza], guk ikusi izen zein zeren beharren, familiartekoi esan eta “ez, hau ondo eoten da etxen eta ezta atea nahi eta” ... Baino bueno, da, hastea da.
    - Harrigarria da, e». (DRG, 2023)

### 3.3. Kafetegia

Adinekoen Gizarte Zentroak **taberna edo kafetegiko zerbitzu eta espazio batekin lotu izan dira**. Zerbitzu hori zentro horien identitatearen funtsezko atala da, eta bi kontzeptu horien arteko irudi ia bereiztezin bat sortu du gure gizartearen imaginario kolektiboan.

“Pues sí que es verdad que la tradición de los centros de... centros dedicados para mayores siempre, por lo menos aquí en Álava, han estado vinculados siempre a un bar, a una cafetería...” (DRT, 2023)

«Tabernan dau lokal bat, lokal txiki bat han tabernan bertan eta jubilatuek behar baldin badue zerbait, o bilera bat o bingoa, por ejemplo, itten da... Bingoa itten da eta ordun komedore hori tabernako zedittu itten da». (DRG, 2023)

**Kafetegi zerbitzua zabalduena izan da baliabide horietan**. Edonola ere, **zerbitzu hori modu desberdinean kudeatzen da herriaren arabera**. Modurik ohikoenen artean, landa zein hiri inguruneetan, espazioa profesional bati lagatzea, lizitazio publikoa egitea edo espazioa profesional bati alokatzea aipa daitezke.

«Seguran dao taberna bat, tabernea. Eta taberneakoi kobratzen zaio alkiler bat. Eta hortik hartzen do eta itten do... [elkarrizketa gainjarriak]». (DRG, 2023)<sup>xii</sup>

«Ba gu, adibidez, kuota kobratzen deu 10€, e... Gero dirue eskatzen det. Diruesarrera badauke udaletxetik, 1600 da eztakizer... Eta guk ezteu ezertxore ordaintzen. Daukeu taberna bat lehen taberna izantzana, udaletxek, e... akuerdo batea geldittu zan, ordaintzen dio nagusiarri eta guk ez argia, ez ure... ezerrez ezteu ordaintzen. Tabernako hori atutzen deuna, ba,e, pa' cubrir gastos de la taberna...». (DRG, 2023)

Berezitasun bat ikus daiteke landa inguruneetako kafetegien kudeaketan. Izan ere, kudeaketa eredu ugarien barruan, asko dira **bazkideek berek autokudeatutako kafetegiak**.

Guztiek aukera ematen dute mahai batzuetan edariren baten eta, zenbaitetan, janariaren inguruan eserita egoteko. Era horretan, beste pertsona batzuekiko interakziorik informalenak eta berezkoenak errazten dira. Hala ere, **autokudeaketa mailak eta kudeatzeko moduak desberdinak dira**. Zentro batzuek tresna sinple batzuk edo salmenta makinak dituzte, nahi duenak edariren eta janurrekoren bat hartzeko. Beste batzuek, berriz, edozein bazkidek erabil dezakeen ohiko sukalde txiki eta kafe makina bat dute. Eta beste batzuetan, bazkide bat borondatez arduratzen da kudeaketaz gainerako bazkideentzat.

“Nosotros no tenemos bar, es una asociación, pero no tenemos bar, pero vendemos cafés, cervezas y vino lo máximo, vamos. No podemos gestionar un bar, no tenemos permiso, pero eso vendemos.

- Moderadora: Y lo vendéis entre vosotros, o sea, sois..., no es un trabajador, sino que es...

- El que está de junta hace el café y...

- Exactamente.

- Y ahora por lo menos, vienen y se lo llevan, que antes había que llevarselo.” (DRA, 2023)

“- A ver, aquí tenemos esa máquina, quien quiera tomar un café tiene que pagar 50 céntimos y se pone el café, ahí están las cápsulas, y punto. Y nos tenemos que fiar, si yo me he tomado un café, si me he tomado dos, si he echado o no he

echado. Al final... Y no tenemos más que eso y agua, así de claro, porque aquí no hay otro..." (DRA, 2023)

*"- Moderadora: ¿Y quién se encarga de hacer esos cafés?*

*- Pues ahora, últimamente, han pedido voluntarios, han pedido voluntarios para que, por ejemplo, los sábados a la tarde, el que se compromete tiene que estar.*

*Y domingos a la mañana. Lo demás, hay un grupo de gente que siempre van los mismos, ya tienen sus horas, ellos se sirven, ellos..., es un bar, funciona como un bar.*

*Y ahora mismo, a ver...*

*(...)*

*- Moderadora: ¿Porque hasta ahora quién se encargaba de abrirlo? ¿Cómo funcionaba eso?*

*- Pues es que siempre había alguna persona mayor, a ver, mayor, recién jubilado, que ahí entraba y ahí tiraba para adelante.*

*(...)*

*- Es que ha habido gente, fíjate, el moreno, el marido de ella, ese estuvo años y años y años, un señor que vino de otro pueblo, pero ya desde antes de jubilarse ya venía mucho. Se jubiló y es que, con ese señor, ese bar tiró..., los días de labor, hombre, ya los domingos no tanto ¿no? Porque siempre ha habido gente voluntaria.*

*Pero claro, la gente también, lo de voluntario..." (DRA, 2023)*

*"-Sí, como bien ha dicho ella, nosotros en nuestro pueblo, igual es (que estábamos comentando antes), eh... A ver, el nuestro es un local que tiene una cocina pequeña, tiene una barra, pero los socios pueden entrar con una tarjeta electrónica cuando quieran. Entonces...*

*-Bai, como un txoko. Bai, esan dezun bezala, como un txoko decías antes, bai.*

*-Es un txoko. O sea, la cosa es que, en ese txoko, según qué horario hay unas actividades. Pero claro, también a comer. Algún sábado igual, "pues oye, vamos a hacer una comida, tal, pues yo con mis familiares y hago una comida. Lo reservo y lo hago". Entonces, es medio txoko, medio asociación... para definir es un poco difícil."*

*(DRT, 2023)*

## 4. GOBERNANTZA ETA PARTE HARTZEKO EREDUAK

Ikusi denez, **landa inguruneetako AGZen ohiko gobernantza eredua bi figura bereizi dituen elkarte batena da**. Batetik zuzendaritza batzordeko kideak daude, eta, bestetik, bazkideak. Batzordea, zehazki, zentroan egiten diren jarduera gehienak eta bazkideei lotutako alderdi guztiak zehazten eta kudeatzen dituen boluntario talde bat da. Bazkideek, bestalde, beren gozamenerako baliatzen dituzte espazioa eta jarduerak, eta, urteko batzarren bidez, zentroko erabakiak hartzen har dezakete parte.

Zentroko jarduerak eta bizitza kudeatzeko prozedurarik ohikoena **zuzendaritza erabaki gehienak hartzen dituen erabakigune batena da (Batzordea)**. Gune hori zuzendaritzagune naturalizat hartzen da; *Batzordeak erabakitzen du, proposamenak onartzen dira eta batzar orokorrean aurkezten dira*.



«—Batzar orokorra eiten dogu urte hasieran eta hor, ba gu zortzi garenez, ba zortzin artean erabiltzen dugu,  
 —Bainon ez dago bozkaketaik, eh... elkarteko sozion artean...  
 —Batek proposatu ta beste guztiok onartu.  
 —Guk ez, guk erabakiak, holan, ezerrekin, geuk erabakiten... Diktadore batzuk gara, jejeje.  
 —Ba beira, guk gero juntan, juntan.  
 —Hori, hori juntekoa dana [elkarrizketa gainjarriak].  
 —Junteko, juntekoa... Geuk egiten dugu. Itxuen dala esaten dogu zer egingo dugun, baina ebatzi, azkenengo ebatzi geuk erten dugu ta... kitto. Inork, eh...!  
 —Normalean, asanblean presentan da urteko, e, ekintzak». (DRB, 2023)<sup>xiii</sup>

Kudeatzeko eta parte hartzeko gainerako organoen funtzionamenduari dagokionez, **kasu gehienetan elkarrearen Batzar Orokorra ez da kontrastatzeko eta eztabaidatzeko gune bat, azalpenak eta informazioa emateko gune bat baizik**. Izan ere, ikusi denez, gehienetan ez dira iritziak kontrastatzen, eta ez dago eztabaidarik.

«—Eta noizbait eduki dezute... O sea, ez dakit, jende bat eztula nahi sartu juntan, baino bai iritzia daukala edo “Aizu, zergatik ez dezute hau egiten?”? Edo gehienetan iritzia daukana juntan dago...  
 —Ez da egoten iritzirik». (DRB, 2023)<sup>xiv</sup>

Organigrama edo kudeaketa eredu horren ondorioz, **batzorderik ez badago AGZk desagertu egingo diren ideia** sortu da, eta indar handia du.

Hala ere, ikus daiteke **gaur egun erakunde gehienak ziklo aldaketa edo belaunaldi errelebo batean murgilduta daudela**. Aldatu ez diren elkarrean, ordezkariak urte asko daramatzate batzordean, eta ziklo luzeak bete dituzte. Beste kasu batzuetan, bi aukera dituzte: desagertu (ahuleriaz hil) ala berrantolatu.

“La asociación, hicimos una refundación de la asociación en 2019, porque la anterior que había, pues se murió por inanición, pues porque los que estaban se fueron muriendo, y se quedó aquello, pues, eh...” (DRB, 2023)

«Nik, e, planteatuko det, e, konkreto nire herrian gertatu dana. Juntabat zeon, baino berritzekin inor etzan presentau, eta, e, lehendakari zeona zeon dispuesto, tabeak esate zon: “besteik ezpa, bi edo hiru... laguntze baldin badit, ni dispuesto nao aurea jarraitzeko”. Inok etzun zeatzen. Ordun, bea juntan udaletxea ta esantzon, eta itxita dao zentroa. Uain, hasi da talde bat, emakumezko gehienbat, baino hasi da talde bat pixkat muiltu nahien, eta atzo eon nitzen zea horrekin». (DRG, 2023)

**Batzordean parte hartzeko errezeloa dago, parte-hartzeak oso inplikazio zorrotzak eta urte askokoak dakartzalakoan**. Norbaiti parte hartzeko esaten zaion aldi gehienetan, erantzuna ez da izaten «ez zait gustatzen», «ez dut interesik» edo antzekoa. Aitzitik, verbatingean jasotakoaren arabera, gehiegizko lanaren ondorioen beldurra da parte hartzeari uko egitearen arrazoi nagusia.

Landa Elkarrizketen kontakizun askotan ikus daitekeenez, *parte-hartzea* batzordean parte hartzearen sinonimo gisa baino ez da ulertzen maiz.

Hori dela eta, parte hartzeko beste modu batzuk ikusezin bihurtzen dira, eta ez da aitortzen gainerako modu guztiek duten balioa. Modu ugari horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: jardueretan parte hartzea, logistika zereginetan laguntzea, zentroko jarduerak beste pertsona batzuei zabaltzea eta/edo norberaren presentziarekin eta jarrerarekin giro ona sortzea.

Hori guztia dela eta, **oso binomio garbia dago: konprometitutako jendea eta konprometitu gabekoa**. Irakur daitekeenez, batzordean dauden pertsonak konpromisoak hartu dituztenak dira, eta, bestetik, konprometitu gabeko bazkideak daude. Ez dago bitarteko lan edo konpromiso espaziorik (komiteak, lantaldeak eta abar), eta horrek sendotu egiten du *bazaude edo ez zaude* horren ideia.

«—Sartzen baldin bazea elkarten, konpromiso bat daukazu elkarte horrekin.  
Baino, zea, bazkide itten die, eh. Bazkide [elkarrizketa gainjarriak].  
—Bai, bazkide itten die. Konpromisoipe.  
—[Elkarrizketa gainjarriak] Bazkide bai. Baino gero hor lokarritik tiratzeko...». (DRG, 2023)

“-Muy poca participación.  
- Sí.  
- Y pides ayuda y no te ayuda nadie.  
- Y no te... participan, yo sí que lo veo, y creo... ahora que voy a decir que me gusta enterarme de lo que tengo...” (DRA, 2023).

Batzuetan, hainbat batzordetako zenbait pertsonak adierazi dute bazkide bakoitzari deitzen diotela telefonoz jarduera jakin batzuk gogorarazteko eta parte hartzera animatzeko. **Horrek susmo bat sorrarazten du: Zergatik ez dira pertsonak parte hartzera animatzen? Ez direlako konprometitzen? Ala proposatzen diren jarduerak ez datozelako bat haien interesekin eta/edo beharrekin?**

Halaber, **nekatu arteko parte-hartzearen** eredu bat dagoela ikus daiteke. Kasu horretan, parte hartzen duen pertsonak erretzen den arte irauten du.

“- Moderadora: ¿Porque hasta ahora quién se encargaba de abrirlo? ¿Cómo funcionaba eso?  
-Pues es que siempre había alguna persona mayor, a ver, mayor, recién jubilado, que ahí entraba y ahí tiraba para adelante.  
- Moderadora: Claro, pero quiero decir, la llave la tendría..., no la teníais todos ¿no?  
- No, no, no.  
- Moderadora: Me imagino que era... Los de la junta.  
- Es que ha habido gente, fíjate, el moreno, el marido de Marije, ese estuvo años y años y años, un señor que vino de otro pueblo, pero ya desde antes de jubilarse ya venía mucho. Se jubiló y es que, con ese señor, ese bar tiró..., los días de labor, hombre, ya los domingos no tanto ¿no? Porque siempre ha habido gente voluntaria. Pero claro, la gente también, lo de voluntario...” (DRA, 2023).

Ikusten denez, **parte-hartzea handia da antolatutako jardueretan, eta arazoa ez dago parte-hartze mota horretan, zereginak antolatzera eta horretan konpromisoa hartzera**

**bideratutako parte-hartzean baizik.** Horrek indartu egiten du zalantza edo oztopo bat: agian gakoa ez da nola lortu AGZk erakargarriak izatea, baizik eta **nola lortu AGZen barruko erantzukizuneko eta zereginen koordinazioko postuak erakargarriak izatea, eta nola sortu parte hartzeko egiturak bitarteko erantzukizuneko figurekin.** Erantzun gabe geratzen da galdera bat: Egungo gobernantza egiturak bat al datoz egungo bizi ereduekin?

- “- Bai, pero nosotros, como la sociedad, tenemos que cambiar para hacer atractivo a los que vienen por detrás. ¿Cómo? No tengo ni idea.
- Oye, atractivo ya lo ponemos; se apuntan a todas las actividades.
    - Sí, ir de vacaciones.
    - Pues claro que sí, es atractivo.
    - Pero el compromiso social, no existe. No existe.
  - Yo lo que veo es que, bueno, que en esta... nuestra generación éramos bastante más solidarios de lo que éramos ahora.” (DRG, 2023)

**Egungo eredu aldaketak edo irekitzeak jarduteko modu tradizionalagoak dituzten pertsonen haserrea edo deserosotasuna dakar berekin.** Hori dela eta, batzuek bakarka bizi duten haustura sentimenduaren edo aldaketa ahaleginaren aurrean, bazkide batzuk estrategia kolektiboak lantzen ari dira batzordeak aldatzeko. Adibidez, erantzukizunak batzordea osorik eta beraiek izendatutako pertsonekin aldatzen denean soilik har ditzaten eskatzea, pertsonak batzordeetatik ateratzea, batzordea desegin dadin eta bozketa bidez berria sor dadin eskatzea eta abar. Erabakiak bakarka hartu ordez taldean hartzeko ereduak berriz definitzeko eskatzen duen belaunaldi baten aldarrikapena da.

«Gu oso jende gaztea dagoz. Eta juntakuak ni, niri proposau oztien junta sartzea, eta ni sartu nintzenean izantzan... Nik baldintzabat jarri neban: nirekin hor, e, geo ya juntan nik aukeratzen neban, bestela... Orduan, nik aukeratu dudan jendea nire adinekoa da. Orduna, gu juntakideak ba gara 60 urte bueltakoak, orduan... Nik eta nire amak ez dogu berdin pentsetan. Nire aman zereginak eta nireak ez dira bardinak... Orduan...». (DRB, 2023)

Parte hartzeko ereduaren inguruko gairik esanguratsuenetako beste bat adinekoen belaunaldi desberdinen arteko bizikidetza da. Ikusten denez, AGZk adinik handienekoen belaunaldietara bideratuta zeuden lehen, eta azken hamarkadetan belaunaldi berrieekin elkartzen hasi dira.

Agerikoa ez den nolabaiteko adostasuna dago parte-hartzaileen artean: belaunaldi desberdinek interes eta behar desberdinak dituzte. Adierazi dutenez, eredu zabaldu beharra dago, hautsi gabe, gune horietan urte gehien daramatzaten belaunaldiak zainduz, eta, aldi berean, beste belaunaldiei tokia utziz eta denontzako **bizikidetzaguneak** proposatuz. Hori guztia erakunde edo kudeaketa/antolamendu/gobernantzarako gune desberdinen arteko bizikidetzan zein jarduerak adin eta gustu desberdinetarako antolatzeko garaian islatzen da.

«Horrek nagusiak dira, orain dela 30 urte, e, eraiki zutenak elkarteak, eta martxan ipini zutenak elkarteak, eta hor egon dira... A ver, ni naz presidente oin dala 10 urte, eta ni bigarren presidente naz, e, elkartean. Aurrekoak egon zen 20 urte, 60 urtegez zabaldu zuten eta 80 urte euki zuten hare aparte. Orduan oin nik, bereziki, baina bereziki, zaindu behar ditut pertsona nagusi hoiek.

—Nik hori argi daukat. Bai, bai.  
—Gu defendiduko gara. Gu defendiduko gara, eta eingo doguz gauzak, baina bereziki, horxe pertsonak zaindu behar doguz. Nagusixenak». (DRB, 2023)

Hala ere, **belaunaldien arteko bizikidetz**a gizarte zentro gehienetan ahaztu samar dagoen hirugarren faktorea da. Oro har, nahasi egiten dira belaunaldien baterako existentzia (guk tailerrak egiten ditugu, haiek kafetegian daude, kartetan) eta belaunaldien arteko bizikidetza (bizitza komuna egitea). Horrek tirabira nabarmenak sorrarazten ditu belaunaldien artean.

## 5. ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIKO HARREMANA

**Jarduerak antolatze**ko garaian udalekin duten harremanari dagokionez, azpimarratu beharra dago gehienek **oso harreman positiboa eta laguntza handikoa** dutela adierazi dutela. Hala ere, bitxia bada ere, gehienetan pentsatzen da jarduerak elkarrekin egiteak honako hau esan nahi duela: AGZek jarduerak lantzen eta antolatzen dituzte eta komunikazioa egin eta zehazten dute, eta udalek, berriz, ordaindu egiten dituzte, eta, izapideak egin behar badira, kudeaketa lanak egiten dituzte. **Funtzioen banaketa markatu samar** dago, eta ez dirudi administrazioaren eta AGZen elkarte baten arteko lankidetzatzat zer hartzen den berriz pentsatzeko asmorik dagoenik.

“Hay cosas que hacemos conjuntamente entre los dos, bien el pago sea de uno o de otro, y luego sí que hacemos también conjuntamente, pues tenemos durante todo el curso el curso de memoria, diríamos, es todas las semanas. Entonces, pues eso, la contratación la hace el ayuntamiento, pero el sitio, el lugar, el espacio, es el hogar de los jubilados. Entonces, sí que solemos hacer, así, diferentes cursillos que igual el ayuntamiento hace diríamos la gestión, el pago y la contratación, pero luego todo lo demás hacemos con ellos. O sea, ponen ellos los carteles, decidimos entre todos si hacer esto o hacer otro... Conjuntamente, diríamos, sí. Y luego aparte que tienen mogollón de actividades, pero es un poco mezcla.” (DRT, 2023)

Hortaz, **Udalaren rola laguntza ekonomikoen eta ekipamenduen hornitzailearena eta izapideen kudeatzailearena da kasu gehienetan**. Ez dago estrategia partekatuen, esku hartzeko programei lotutako ekintza bateratuen eta/edo informazioaren transmisio formalaren ebidentziarik.

«Pues, udaletxetik bastante... Udaletxek asko laguntzeozku bai diru mailan ta bai zein, ze... Euki deu problema bat, oin be, pues gimnasia ta danza emateko, baina danetarako, pues, ba... Jente gitxi da, ta ordun, ordaintzeko momentun diru asko ordaindu bixan. Ordun udaletxeari, alkateari esan notzan, ia laguntzen dozkun dantza sartzen, da, ba dantza erdixe berak finantziaten da... Hortan gabiz, e, a salto de mata...». (DRB, 2023)

**Udalak hornitzaile gisa betetzen duen rol hori hautsi egiten da zenbaitetan**, uste baita udalek ere gauzak antolatzen dituztela. Nolanahi ere, gauza horiek zerbitzuetara bideratuta daude, estrategia zehatz eta partekaturik gabe. Kasu horietan ere, balorazioa oso positiboa da.

«Egixe esan, udalak ere, e, gauza askoipintzen deuz. Nagusientzako ginasia berak ipintzen deu, edo gaztiagoantzat ere potentie, potentie, edo pila bat gauze diferentik jartzen deuz, bai umientzako, bai bestientzako eta guretzat bebai. Pagetan degu kuota gure deuenak joan eta ezteko horren ardurik hartu beharrik. Eta ginasia egin gure deunek edo egin gure deunak [ulergaitza] edo uden pisinetan, ze pisinek ere badekoguz, uderako bakarrik, han ere, ba udan egin edo ginasia. Oin egiten dogune da aquagym. Oso gustora ibiltzen gara, gainera, barre itzelakin. Eta, ba bueno, alderdi horretatik ezteko nagusi moduen hainbesteko pisu hamen ikusten doten moduen, ze klaro, udalak egiten deu. Eta orduen, ba gu beste gauze batzuten zentratzen gara. Egiten doguz, e, eskursinoak, e, eskursino batzuk dire laburragoak, e, arazoak gehixau dakiezenak etortzeko modukoak, bertane ingurutxuen; beste batzuk dire, ba urruntxuagoak, eta, ba eiten doguz batzuk ere, adibidez, e, lehengoan joan ginen La Bastida-Clairence-era, Frantzin, Baionatik, e,parien, eta laster joango gera Fríasera, Burgoseko goiko partera. Kontutan eukituko ze, klaro, gazteagoak garenok, ba gure dogu urruntxoago joan, danak euki dexien aukerie egiteko gauzak». (DRB, 2023)

Batzuetan, **botere borroka bat dago Udalaren eta AGZren artean**. Sortzen diren ekintzak edo jarduerak kontrolatu nahi izatearen sentsazioa sortzen da, eta AGZk askatasuna eskatzen du. Udalak, berriz, baliabide publiko bat baldin bada erakunde publikoak zeharka eragin behar duela dio.

«Auto, autonomo. Burujabe izan nahi deu eta hori eztue onartzen. Beraiek dana kontrolatu nahi due. Dana dana udaletxek. Esateizuet, kultur etxe bat zeon, funtzionatzen zuna, o sea, kultur asunto dana emate zun: festak, hoi dana... Eote zan, kontzejal bat eote zan hemen, eh. Hauxe, hemen. Baino, ez, hoire, hara. Dana udalak. Eta ez... Librere izan behar deu noizbaitten. Bestela sartzen zea beraienpean. Ta ez, ondo bazatoz, eamango zea, baino librere izan nahi deu. Eta pixkat hoi pasatzen zaigu». (DRG, 2023)<sup>xv</sup>

Arestian adierazi dugunez, elkarrizketatutako teknikariek adierazi dute **administrazioak arazoak konpontzeko eta izapideak arintzen eta oztopo teknologiko guztiak gainditzen laguntzeko rola bete beharko lukeela beti**. Ikuspegi hori dute AGZek (laguntzaile/bideratzailearen rola).

“Entonces, pues bueno, al final la administración está cambiando, los procedimientos están cambiando, la sociedad también, y ellos pues van a lo quepueden, que bastante hacen con todo lo que hacen, pero claro.... Pero esos tipos de cosas puesbueno, pues tienen... Al final nosotros arriba tenemos, en el segundo piso, está el centro de día. Entonces sí que suben muchísimas, hacen actividades, pues van a cantar, el día de no sé qué llevan chocolatada, llevan castañas... O sea, todo eso muy bien, pero luego, diríamos el papeleo de dentro, los procedimientos, esas cosas... pues, ahí sí que necesitan apoyo y ahí, pues, sí que tienen otro tipo de necesidad.” (DRT, 2023).

“El animador sociocultural te ayuda a todas las asociaciones, personas particulares, a todos, a la hora de cualquier cosa, de cualquier actividad, gestionarla, incluso lo que

acabamos de hablar de las subvenciones, o sea... Y si tienes algún problema, en seguida te ayuda para, vamos, que te ayuda, de verdad, o sea, vas y te hace..." (DRA, 2023)

Udal gehienek ahalegin handia egiten dute AGZetara hurbiltzeko. Hurbilketa horren barruan, udalen funtzio nagusia eguneroko arazoak konpontzeko eta mota orotako laguntzak ematea da: izapideak erraztea, memoriak egitea, espazioak egokitzea eta abar. Hala ere, izan litzaketen beste funtzio batzuei buruzko gogoeta sortzen da: **zein izan daiteke Udalaren rol estrategikoa, soluzioak emateko rolaz gain?** Beharrezkoak izango al lirateke lankidetzak eta estrategia partekatuak adineko herritar horiei laguntza eta arreta emateko? Arazoak konpontzeak AGZren eta haren elkartearen *zerbitzura* egotea esan nahi al du?

"Pues desde hacer una subvención, eh, ser su representante legal (autorizado, eh, para todo el tema de la administración electrónica) y bueno, pues eso, acompañarlos, bueno, pues en diferentes foros, cuando han estado con vosotras o en otro tipode foros, estar con ellos y... Ser pues casi casi uno más... Uno más. [Ininteligible], yo creo que eslo... creo interesante, lo bueno, que te vean como uno de ellos, no como la administración. Hombre, ahí influye mucho el *feeling* y el buen rollo que puedas tener con las personas que están en la junta o en la asociación ". (DRT, 2023).

"Yo creo que es acompañar. Acompañar que puede ser, pues eso, de hacer la justificación con ellos del año de la subvención que han recibido, o sea, acompañarlos a hacerles eso, como acompañarles cuando van a hacer la presentación de fotos y estar pelando patatas con ellos y cortando en la Thermomix, o sea, nosé cómo decir, para hacer las patatas [inaudible]. O sea, puede ir de un lado hasta el otro, o organizar o hacer un cartel y decir: "Alazne queremos hacer esto y es que los carteles que nos salen no nos gustan mucho y tal. ¿Nos puedes imprimir y nos puedes hacer un cartel pequeño?". Pues yo creo que es acompañar ahí. O "vamos a hacer no sé qué comida, ¿te importa pedirte a ti los presupuestos? Que igual vosotros ya sabéis cuáles son las empresas que andan en ello". O sea, como eso. O sea. Pero luego te mandan un Excel con todos los tickets hechos y "Alazne, soloes imprimir, eh, ¿vale?" y tienen todo hecho, o sea... y luego son unas máquinas. Algunos, por lomenos. Pero yo creo que, pues eso: ser uno más de ellos, no ser ni más arriba ni más abajo, o sea... pues eso, andar con ellos y ser uno más de la junta. O sea, al final, yo creo que es eso. Ir, acompañarles y ya está. Y si tienen alguna necesidad, pues mejor que mejor, y ayudarles y... puesme gustaría tener más presupuesto, pero yo creo que eso todos. Pero si no, para mí es eso, o sea... Pues juntarse con ellos cada vez y "Bueno, ¿qué vamos a hacer? ¿Qué veis para este año? ¿Para este trimestre qué haremos? ¿Veis alguna necesidad?". Un poco así." (DRT, 2023).

AGZez arduratzen den udal teknikariaren rola gehien eragozten duten elementuetako bat «orquestra emakume» edo «orquestra gizon» kontzeptua da. Elementu hori hiri ingurunean ere badago, baina landa ingurunean du indar handiagoa. Izan ere, pertsona bat hainbat zentroz, hainbat eskualdez eta hainbat funtzioz arduratzen da, ez du soldatarik bere zeregina betetzeko eta abar. Horren ondorioz, bere rolari buruzko gogoeta estrategikoa egiteko ahalmena gauza zehatz batera mugatzen da: suteak itzaltzera eta orainaldirik hurbilenean pentsatzera. Hori dela eta, neurri batean gurpil zoro bat da, isatsari hozka egiten dion arraina, non gauzei soluzioa emateko rol hori ahultasun handiko egoera baten

ondorioz sortzen den.

**Rolaren profesionalizaziorik ezarekin eta figura egonkorrik ezarekin batera, urritasun ekonomikoa agertu ohi da.** Profil horren garapena ahalbidetuko duen formula juridiko-ekonomiko batean pentsatzea ere funtsezkoa da landa inguruneetan. **Interesgarria da ikustea ez zaiela iruditzen laguntza ekonomiko gutxi jasotzen dituztenik, eta ez dute diru urritasuna aipatzen jarduera gehiago ordaintzeko, lagunduko dieten giza baliabideak eta teknikariak lortzeko baizik:**

«Hori da ideala, baino hori badakit ez dala gertatuko. Ez dakit, e, herri txiki hauetan ez dao, e, zea, aurrekontue danandako. Ordun, ba hori... nei gustatuko litzaidake ba dinamizatzaile bat eotea, e, zea bat, edukadore, gizarte hezitzaile bat izatea... Gauza asko gustauko litzaieke, baino es que badakit ez tala posible, ordun... ba herri hauetan eiten dana da, ba multiusos daneako. Teknikarik, lehen besteak esan duna, ba... Ahal duguna iten dugu, herri hauetan, ba hori... ba batek ez baldin bada, bestek, ba apoiatu behar izaten da, baino hortarako edukitzea persona bat, ba nik ezinezkoa ikusten det». (DRT, 2023)<sup>xvi</sup>

Dena defizitarioa den herri txikietan dinamizazio figura horiek sartzea eta haiei eustea funtsezkoa da. Lurralde guztiak bat datoz honetan: goi mailako organo baten mende egon beharko luke (Eusko Jaurlaritzaren mende, adibidez). Izan ere, **azken helburua lurralde oreka** da, hots, leku horiek ez hustea, landa bizitzak jarraitzea, bakardadeei aurre egitea...

«Bai. Baliabide pertsonalak... ezin direla euki hainbeste baliabide. Ezin dire. Incluso lau herri, nola lau herrietan ere elkartuta daren, ba eztaikit... ezingo litzeke segurana. Ordun, bai, Eusko Jaurlaritzak jarriko balu laguntza mota bat, ba oso ondo. Oso ongiatorri izango litzeke. Oso ongiatorri. Baino, claro, ekonomikoki, a ver ze koste daukan eta ikusi beharko litzeke; klaro, betikoa... Ez dago holako aurrekontu potenteik izaten. Realidadea hori da. Oso bakarrik utzi naute, e». (DRT, 2023)<sup>xvii</sup>

Horri dagokionez, beharrezkotzat hartzen da lurralde horietako giza kapitalizazioari eta ekipamenduen eta kudeaketa teknikoaren kapitalizazioari buruzko gogoeta, bai eta, haien garapen eta jasangarritasun egoki eta estrategikorako, aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen artean egin beharreko eztabaida banatzeko moduari buruzkoa ere.

## 6. EKONOMIA

Hiri inguruneetan bezala, landa inguruneetako Adinekoen Gizarte Zentroen finantzaketa iturri nagusirik ohikoenak honako hiru hauek dira:

- Bazkidearen urteko kuota.
- Jarduera bat egiteagatik egin beharreko ordainketa.
- Adinekoen asoziazionismoari lotutako dirulaguntza publikoak.

Hala ere, hori ez da berdin gertatzen zentro guztietan. Zentro batzuetan, jarduera guztiak doakoak dira parte-hartzaileentzat, eta beste batzuek kendu egin dute bazkidearen urteko kuota.

Laguntza ekonomikoetarako dagokienez, lurraldearen eta, zenbaitetan, elkartearen beraren arabera aukera asko eskaintzen dituen mapa bitxi bat jaso da elkarriketetan. **Laguntza sistema desberdina da lurralde historiko bakoitzean**, eta eragin desberdina du bertako elkarte bakoitzean. **Ez dago sistema homogeneizaturik**, eta, horrelako sistema bat izateko aukera aipatzen den bakoitzean, elkarteek diote ahalmenak galduko lituzketela seguruenik, ekonomikoki beherantz homogeneizatuko babiluzkete laguntzak.

Ondoren, Landa Elkarriketetan jasotako desberdintasunak deskribatuko ditugu. Adierazi beharra dago **41 parte-hartzaileek emandako informazioa** dela, eta ez dela bestelako analisi ekintza osagarriak egin (ez baitzen ikerketaren xedea). Hortaz, baliteke ñabardura batzuk guztiz bat ez etortzea udalerriren baten errealitate objektiboaren alderdiren batekin:

Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
<p>Adierazi dutenez, laguntza ekonomikoen eredu sendo bat dute, eta hainbat iturri publikotatik lortzen dituzte dirulaguntzak: udaletatik eta Bizkaiko Foru Aldunditik.</p> <p>Kasu gutxi batzuetan, herriren batek kooperatiba baten finantza babesa ere jasotzen du.</p>	<p>Dirulaguntza publikoetarako dagokienez urritasun ekonomikorik handiena adierazi dutenak dira.</p> <p>Zenbait kasutan, udalek dirulaguntza publikoaren eta/edo baliabideen zuzkiduraren bidez babesten dute finantzaketa, baina hori ez da herri guztietan gertatzen.</p> <p>Egoera horren ondorioz, herri askok inguruko kooperatibetan bilatzen dute finantzaketa, modu osagarrian edo diru sarreren iturri nagusi gisa (inolakako dirulaguntzarik jasotzen ez den kasuetan).</p>	<p>Babes ekonomikoa gutxien aipatu dutenak dira. Hala ere, baliabide profesional, mugikortasun baliabide eta ekipamendu baliabide gehien behar dituztenak dira.</p> <p>Finantza babesa lortzeko bideak askotarikoak dira, eta udalen, kuadrillen eta Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza eta/edo baliabide zuzkidura jasotzen dute.</p>
<p>«Guk laguntza bi dekoguz: Foru Aldundikue eta udaletzekue». (DRB, 2023)<sup>xviii</sup></p> <p>«—Bai, ba gure herrian kooperatiba batekin eiten dotse, bai». (DRB, 2023)<sup>xix</sup></p>	<p>«Udalak ematen du oso era irregularrean, toki batzutan 400 beste batzutan 6000 edo ezer ere ez, eta inguruko enpresak baliatzen dituzte horretarako».<sup>xx</sup></p> <p>«...duen etekinaren % 5 dohaintzetarako eman behar du.</p> <p>—A... Ongi.</p> <p>—Orduan, jakina, denei</p>	<p>«Hori da. Kuota bat ordaintzen dugu urtean, eta horrekin finantzatzen gara. Zer gertatzen da? Ba, jardueraren bat egiten badugu, jarduera horrengatik gero dirulaguntza bat eska daitekeela. Orduan, bueno, fakturekin eta guztiarekin, edo kultura txango bat egiten badugu, autobusarena ere bai, horretarako. Batzuetan, Las Cuatro Torres elkartearen jardueren arabera, orain,</p>



	<p>eskatzen diegu.</p> <p>—Eta uste det danok hortik jasotzen degu dirue, danok». (DRG, 2023)</p> <p>«—Guk danoi eskatzen dieu. [elkarrizketa gainjarriak]». (DRG, 2023)</p>	<p>adibidez, Batzar Nagusia egin zenean edo herri baten egunean izaten dugun bazkarian, autobusa Las Cuatro Torres elkarteak ordaintzen du, hau da, ez dugu gastu hori, esan dezagun, ordaindu behar dugun bakarra da...</p> <p>—<i>Moderatzailea:</i> <i>Orduan, esaten ari zinen hiru dirulaguntza eskaera daudela.</i></p> <p>—Bai, gu, Udala, Aldundia..., hau da, Cuatro Torres, Udala eta Aldundia, bai, kasu honetan lotuta dago.</p> <p>—Denak bezala». (DRA, 2023)</p>
--	--	---

Edonola ere, kontuen opakutasunak zailtasun handia sortzen du lurralde bakoitzeko kontabilitatearen eta jasotako laguntzen argazki zehatza egiteko garaian, eta ez dakigu zein diren zenbateko ekonomiko espezifikoak.

Verbatingetan jaso denez, baliabide aniztasunaren eta baliabide ekonomikorik handienak lortzearen pertzepziorik handiena dutenak Arabako zentroak dira, eta, haien atzetik, Bizkaikoak. Zerrendako azkenak Gipuzkoako zentroak dira. Zentro horiek, baliabide urritasuna dela eta, mekanismo pribatuetara jotzen dute beren jardueretarako funtsak lortzeko.

Arabaren kasuan, beharra ez dago baliabide ekonomikoei lotuta:

“Yo, vamos, creo que estamos bien, que no nos hacen falta más recursos económicos, en principio la asociación cuenta con su propia financiación, con sus ingresos y con subvenciones que pueda recibir. Problema económico no hay. En ese sentido, pienso que... oigual nuestra situación es un poquito mejor, pero vamos que no le veo ahí complicación, entonces pues...” (DRT, 2023).

Oro har, Gipuzkoan izan ezik, horri guztiari esker bazkideen kuotak txikiak dira (10 euro inguru pertsonako), eta zenbait kasutan desagertu ere egin dira. Hori dela eta, **arazoa ez da urritasun ekonomikoa**. Hau da arazoa, hain zuzen: **ekipamendu publiko komunitarioen eta langile profesionalen urritasuna, eta garraio eta mugikortasun zailtasunetarako laguntzarik eza**.

Urritasuna aipatzen denean, honetaz ari dira askotan: AGZren eguneroko bizitzarako eta garatzen dituen estrategien tamainarako profil tekniko profesionalizatuago bat eta ekipamendu bat izateko baliabiderik eza.

«Esan dizut, teknikari bat daukeu, udalak diru bat lortu zun eta teknikari bat lortu

deu. Horreke asko itten du, baino bea, hortik aparte, estudioa eitten ai da; herriko estudioabakardadean eta hortik aparte, baitare, plan estrategiko hortane lortu gendun herrin zea bat, zentro baten otorduk emateizkie, bazkarie ematen die eta, e, goizetik gero atsaldea, atsaldetikjokuk eta beakin lanak egiten dittue, zenbait, bakarrik dauden jendek bakarrik etxen bazkaldu beharren, horire, ba... hortiken lortu zan, diru bat lortu zan eta hortan ai gea». (DRG, 2023)<sup>xxi</sup>

## 7. ESPAZIO FISIKOA

Ikusten denez, **udalerrri askotan ez dute lokal propiorik**, eta baimena eskatu behar diote Udalari beste baliabide partekatu batzuk erabili ahal izateko. Landa inguruneetako adinekoentzako ekipamendurik ezaren ondorioz, **Udalarekiko mendekotasuna sortzen da, eta negatibotzat hartzen da hori**. Izan ere, beti zalantza sortzen da jarduera egingo den ala ez, espazioa hartuta egon daitekeelako, gehienetan erabiltzeko inolako arazorik izaten ez bada ere:

- «—Beira, guk lokala eskau dugu, lokal bat udaletxei eta eztaola lokalik esan dozkue momentuz, ba eztaola lokala hola danantzako ibiltzeko... [elkarrizketa gainjarriak]  
—Esklusibo...  
—Esklusiboki ez. [elkarrizketa gainjarriak]  
—[...] ez daola lokalik... Ekintzak etteko, ba ikastaruk etteko, erabiltzen deu hau, baino beti aurrez eskatu ein ber deu (...)  
—Ta nola eragiten du horrek zuen autogestiora, zuen antolakuntzara... Nola eragiten du horrek?  
—E, beti pendiente gare, klaro.  
—Klaro. Klaro, beti eskatzen.  
—Beti eskatzen... Beti eskatzen denbora batekin...  
—Denborakin». (DRG, 2023)<sup>xxii</sup>

Zenbaitetan, egoera hori **Udalaren baliabiderik ezaren** eta AGZen ekipamenduak udalerrriaren beste behar batzuetarako erabiltzeko beharraren ondorioa da.

“Bueno, nosotros estamos, un poco, peleando entre comillas. A ver, eh, a nosotros nos pasó que teníamos un centro muy bueno, un espacio... no sé cuántos metros cuadrados, con una barra maja... y al lado teníamos: centro de día y, eh, el consultorio médico. Entonces, bueno, pues por necesidades de espacio físico, el centro de día solicitó a la diputación más número de usuarios. Y bueno, pues nosotros con nuestra buena voluntad, ¿qué hicimos? Abrir la puerta y nos marchamos. Y coincidió el COVID. Pero claro, nosotros nos marchamos sin decir a dónde. Es que coincidió el COVID. Entonces han pasado dos años que se han olvidado de nosotros, y hemos empezado una pelea, una pelea, una pelea... y a veces las conversaciones son un poco subidas de tono. Pero bueno, las relaciones son buenas...” (DRG, 2023).

Nolanahi ere, zainketak jasotzen dituzten eta, erraztasunak emate aldera, ekipamendu jakin batzuk (autobusak, jantokiak...) eskaintzen zaizkien **beste belaunaldi batzuekin alderatzen dute** zainketei aurre egiteko ekipamenduen urritasun hori. Nolabaiteko kontrastea ikusten da, eta **ekipamenduen erabileran agertzen den adinkeriaren inguruko kexa** bat sumatu daiteke.

«Beste gauza. Guk ez daukagu ez centro de día, ez, zea... Ez daukagu ezer. Baina adibidez, umek, e, bazkaltzen due tabernan eta daukie precio, ba... Ez da... Da ajustauta edo loque sea. Zergatik ez aukera eman jubilatua? Gaur egun itten bazan, igual inor ez zan jungo, eh. Hori ere bai.

—Hoi earra da.

—Hori ere bai. Baina aukera hori bilatzea, holako irtenbidek. Ez daukagu dendarik herrian. Bueno, zergatik ez, ba udaletxetik, adibidez, ba jartzea: beira, nik deitzen det farmazia, “Benga, Erkuden, herri horretara”, “Benga, Erkuden, hau, ta hau ta hau behar det”. Eta alguazila jun, jaso hori, ekarri eta banatu. Zegatik ez? Ze behar da? Ba administrazioaren babesa.

—Inplikazioa». (DRG, 2023)<sup>xxiii</sup>

Zenbait kasutan, baliabide publikorik eza dela eta, **boluntarioak behar dira** AGZ ireki gisa funtzionatzen duten funtsezko **baliabide komunitarioei eusteko**.

“Pues ahora, últimamente, han pedido voluntarios, han pedido voluntarios para que, por ejemplo, los sábados a la tarde, el que se compromete tiene que estar. Y domingos a la mañana. Lo demás, hay un grupo de gente que siempre van los mismos, ya tienen sus horas, ellos se sirven, ellos..., es un bar, funciona como un bar.

Y ahora mismo, a ver...” (DRA, 2023)

Ekipamenduei dagokienez, udalerrri askok ez dute jarduerak egiteko espaziorik, eta honako aukera hauek dituzte: a) maileguz hartzea/eskatzea, b) partekatzea, c) elkarte pribaturen batek (elizak edo espazioa jartzen duen pertsona batek, adibidez) lagatzea. Hori argudiatzeko, udalerrriak gastu horiei aurre egin ezin diela aipatzen da, eta, berriz ere, **herri txikitako bizitza komunitarioari eusteko eta landa eremuaren hustuketa eta lurralde desberdintasuna ez bultzatzeko ekipamenduen horniduraz norik arduratu behar duen** planteatu da.

“E, herri txikitxu bat da, guk ez dekou lokalik, hor nabil... Mmm, ia konsegitenbadou con las ayudas europeas o lo que sea, zeoze jausten bada... Lokal txikitxu bat aginduzkueoin juntak eitxeko, ze lehen, ba... Tabernako txaskarriluk izete... izen dire, izen izentzinak” (DRB, 2023).<sup>xxiv</sup>

Errealitate horrek zuzeneko eragina du landa inguruneetan, **ekipamenduak funtsezko espazioak baitira pertsonen sakabanatzeari aurre egiteko eta topaleku iraunkorrak sortzeko**.

«Hori da behar dena. Eta netzako inportante, inportanteena da mobilidadea eta soziabilizatzea. Eta bat bestekin ez dau; o sea, bat ez baldin badaukazu, bestea ezta ere». (DRG, 2023)<sup>xxv</sup>

## 8. ANIZTASUNAK

**Hizkuntza aniztasunaren** kasuan, Gipuzkoan eta Bizkaian ia jarduera guztiak euskaraz edo bi hizkuntzetan egiten dira zailtasun berezirik gabe, eta ez dute uste harremanak ezartzeko oztopoa denik:

- «—Gehiengoak euskaldunek direz. Ordun, normalien euskeraz hitz egiten da. Bateren bat balego, ba eztaixena edo dana dalakoa, ba bueno, lagunduten jako ulertuten edo bere alboko lagunek esatentzo edo beste era batetara... Baina asko badire, elebitan, ya está...  
—Guke bietan egiten dogu.  
—Elebitan.  
—Bai.  
—Gu euskaraz [entzungaitza].  
—Gurean, pasadetan, ba ein da euskaraz, ba bai aktak eta hola... Dana. Momentuz guztia euskeraz egiten da.  
—Bale.  
—E, guke bai, baina... Aurten sartu da bat, e, erdaldune... Bueno, katalanie da... Justo juntan, eta hor ibiltzen gara, bixetara eta bueno... Bada gutzako, batzuntzako ta oztopotxue.  
—Erronka bat. Bai.  
- Nire herrian sikiera biyetara iten da, ze jente erdaldune hainbe dau, eta...  
—Hamen egon zan beste bat Munitxibarrekue.  
—Bai, lehen, eh... Bai, beste herri horretan, e, eta etortzen zan bertora. Presidentie zan, herri horretako presidentie, eta gero, ba hori, gero hamen elkartzen garenien...  
Baina erderaz...  
—Erderaz hark.  
—Bai, erderaz berak eta guk... O sea, bi etortzen ziren eta besteak azaltzentzon eta...  
—Klaro, elkarren hartean hor xuxurlari lanetan ta ya está, listo.  
—Bestela danok euskeraz eitte gendun.  
—Bai, bai, bai. Bestela danok euskeraz». (DRB, 2023)<sup>xxvi</sup>

Araban, berriz, errealitatea guztiz bestelakoa da, eta ia dena gaztelaniaz egiten dute. Bada euskaraz hitz egiten duen jendea ere, eta moldatu egiten da zailtasun berezirik gabe.

Hizkuntza aniztasun handiko lurraldeetan bizi gara, eta horrek kultura aberastasun handia dakar, baita kudeatzeko zailtasun ugari ere. Horren ondoriozko erronkak oso nabariak dira gure gizartean (harreman informalak, hezkuntza baliabideak, laguntza baliabideak, osasun baliabideak eta abar), eta pertsona guztiei informazioa erraz eta beren hizkuntza edozein dela ere eskuratzeko aukera berdina bermatzeko eta, aldi berean, une bakoitzean zer hizkuntza erabili nahi dugun erabaki ahal izateko formulak aurkitzen jarraitzen dugu.

Erronka horiek berak ikusten dira zentroetan, eta ez da aurrerapenik ikusten haiei erantzuteko bidean; aitzitik, egoera hori normalizatu egiten da. Azpimarratu beharra dago, gainera, ez dagoela horren ondoriozko gatazkarik.

**Jatorri aniztasunari** dagokionez, beste nazionalitate bateko adineko pertsona baten aipamena baino ez dugu aurkitu euskal lurraldean egindako elkarrizketa guztietan.

Proiektuari lotutako beste azterketa eta ekintza batzuetan, nazionalitate eta jatorri desberdineko pertsonak identifikatu izan dira, hain zuzen ere adinekoei zentrorra joaten laguntzen dieten eta zentroko bizitzan parte hartzen duten zaintzako profesionalak. Izan ere,

pertsona horiek esparru profesional horretan dihardute nagusiki. Hala ere, landa elkarrizketetan ez zen aukera horri buruzko galdera espezifikorik egin, eta baliteke gauza bera gertatzea, identifikatu ez bada ere. Horrek berretsi egiten du figura horiek bizitza publikoan duten ikusezintasuna.

“- Moderadora: ¿Y hay personas mayores que sean de otros países, que vivan ahora por nuestros pueblos?

- En la asociación no.

- Nosotros hemos fichado un peruano.

- Moderadora: Mira... ¿Y va también al centro?

- No, se ha apuntado, pero no va. Pero no va.

- Moderadora: Pero aún no se anima...

- Ya es bastante.” (DRA, 2023)

Zifra horren atzean, bi errealitate ditugu **aldi berean**. Alde batetik, **AGZek** adineko migratuentzat duten **erakargarritasun maila txikia**. Bestetik, zahartzaroan sartu diren **adineko migratuen kopuru txikia**.

Zehazki, 2022ko Erroldako datuen arabera, 65 urteko eta gehiagoko 5.797 atzerritar daude Euskal Autonomia Erkidegoan; hau da, adineko guztien % 1,13. Zifrak lurralde historikoaren arabera banakatuta ikus daitekeenez, Araba da adineko migratuen ehunekorik handiena duen lurraldea, eta, beraz, ez da kasualitatea atzerriko bazkideren bat duela aipatu duen lurralde bakarra izatea.

	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
<b>EAE</b>	<b>% 1,13</b>	<b>% 1,06</b>	<b>% 1,18</b>
Araba	% 1,45	% 1,20	% 1,65
Bizkaia	% 0,94	% 0,88	% 0,99
Gipuzkoa	% 1,30	% 1,29	% 1,30

Iturria: 2022ko Errolda (INE)

## 9. ERREALITATEAK ALDERATZEN

Bereiz aipatzeko moduko berezitasun edo espezifikotasun jakin batzuk ikus daitezke lurraldeen artean.

### 1.1. Araba; Arabako Mendialdea:

“...zona rural, pues son poquitos. Poquitos y de muchas localidades”

(DRT, 2023)

Araban, **mugikortasun handia dago herrien artean** ekintza jakin batzuetarako. Kuadrilla gisa funtzionatzeko ohitura dute, eta, horren ondorioz, herri batzuk zentrikoagoak dira, beste batzuen kalterako.

Landa elkarrizketen arabera, Arabak jasan ditu pandemiaren ondorio kaltegarri gehienak. Izan ere, pandemiak zuzeneko eragina izan du asoziazionismoan eta aurrez zegoen elkarte bizitzan.

“-Hago mucha vida... mi vida social está en este otro pueblo. Mi pueblo es un pueblo pequeño. Antes de la pandemia teníamos vida social, a partir de la pandemia nos lo ha robado todo. Entonces, hay un centro social, que ahora mismo hay una nueva junta, y este lunes nos han llamado a una reunión, pues que quieren dar... darle más vida social que la que hasta ahora ha tenido, porque hasta ahora era como más, vamos a llamarle, comidas, cenas, más... Yo también pertenezco a un grupo de mujeres de Antoñana pues que hacíamos gimnasia, hacíamos yoga, pero lo que pasa en los pueblos, que la gente se va haciendo mayor y no hay relevo. No hay relevo, me dirijo a nuestra asociación. Sí que está habiendo gente joven, pero nuestra asociación pues ya nada. Y parece que desde el centro social quieren darle... quieren darle un empuje, vamos a llamarle. Entonces he venido a gusto a esta reunión pues porque si de aquí puedo sacar algo para que a partir de octubre podamos hacer allí, pues me parecería estupendo.” (DRA, 2023)

Arabako asoziazionismo ereduak Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak baino lotura txikiagoa du beste elkarte batzuekin.

“- No. Sabemos que están, pero... Están las amas de casa, y nosotros, que la mayoría de las amas de casa están con los jubilados, o sea que... Pero no hay mucha relación.

- No se mezclan, es verdad.” (DRA, 2023)

Dena dela, **elkarteen arteko zuzeneko koordinaziorik ez badago ere, batzuek jarraitutasun sentsazioa dute**, denek ezagutzen baitute elkar, aurpegiz baino ez bada ere.

“-No, hombre, a ver, pues lo que digo, como estamos con distintos pueblos, pues a la vez... ¿Sabes qué pasa también? Que aquí, por ejemplo, bueno, pues yo también estoy en la Asociación Cultural de la Mujer, Maria Luisa también está en la Asociación Cultural de la Mujer, a su vez está la Asociación de, esta otra hombre... entonces nos conocemos, qué pasa, vamos al club de lectura feminista que ahí estamos con gente de otros pueblos, de este, del de alado, nos juntamos..., Este otro pueblo, así un montón de gente, y entonces, como nos conocemos, pues muchas veces hablas de las cosas que se hacen, de las cosas que se han hecho en un lado, de las cosas que hacemos en otro, entonces sí que tenemos contacto, tenemos..., y se les invita, por ejemplo, cuando... Yo hice..., igual me has oído, yo hice un grupo de difusión, de wasap de difusión, y los carteles, todo esto que..., esto, mando a la gente, y no solamente lo financiamos aquí, si en ese pueblo hacen algo, si en el otro me entero que esto, que me dicen, oye, qué tal si..., yo lo mando, puede haber personas que les interese, entonces...” (DRA, 2023)

Araban **ikusten da batez ere kartetan aritzea jarduera gisa aldarrikatzen duen profila**. Kasu batzuetan badago belaunaldi txandaketa, baina, oro har, adinekoen belaunaldi berrien jarraitutasunik eta erreleborik ezaren sentsazioa hautematen da.

“Y bueno, pues pertenezco a la asociación, también, y sí que vengo aquí a jugar a las cartas, con las mujeres, e intento desde mi... lo que buenamente se puede, pues que nadie se quede aparte, cuando se hacen cupos y todo eso, y bueno, pues vengo muy a gusto, porque en principio es que encima me gusta jugar, y eso que no nos jugamos dinero, pero vamos, si no jugáramos dinero, aquí había...” (DRA, 2023)

Parte-hartzeari esanahi berria emateko, **parte-hartzearekin berriz konektatzeko** eta ahal den neurrian areagotzeko beharra dute nolabait ere.

“-Sí.

- La mujer joven no va a entrar, no.

- Porque prefieren estar en la plaza...

- Sí.

- Sí.

-: ...prefieren estar tomando un café, prefieren... lo que sea, otras actividades.”

(DRA, 2023).

Araban, **parte-hartzea areagotzeko eta, horrela, lurraldea motibatze**ko eta gauzak egitera animatzeko **idea azpimarratu dute**. Ez da Adinekoen Gizarte Zentroen gauza espezifikoa bat, ezta adinekoen parte-hartzearena ere. Aitzitik, egoera orokorrago baten parte da. Egoera horretan, oso nabarmena da bizitza publikorik eza, eta komunitatea eta herri horietako pertsona guztien parte-hartzea suspertzeko beharra dago. Aldi berean, bereziki kezagarria da adinekorik kalteberenen isolatzea, eta etxetik irten daitezen eta espazio publikoetara joan daitezen lortzeko beharra identifikatu da. **Funtsezkotzat hartzen dute pertsonak elkartzera eta komunitatea egitera bultzatzen dituen hori identifikatzea.**

“- Eso es a lo que voy yo, tú busca a alguien que tenga algo, motívale, motívale. Mira, pues eso, "soy alfarero, me gusta hacer botijos o tuve ganas de hacer botijos, vamos a ver botijos". Empápale de botijos, ahí va entrando a la otra página, a la otra y entrar en la de los botijos te va a hacer que aprendas el manejo” (DRA, 2023).

## 1.2. Bizkaia:

Bizkaia da **argien identifikatu duena bertako zentroetan eredu aldaketa dagoeneko gertatzen ari dela, batzordeen belaunaldi aldaketen bidez**; hori dela eta, eraldaketarako gogoetaren eta laguntzaren beharrik txikiena duen lurraldea da.

—Nik uste dut... A ver, e, gure aldetik, e, gure aldetik, ba gu gara asoziazio txikitxo bat, e, 80 bazkide bueltakoa eta herri txiki baten bizi garenak. Nik uste dut, eta hortan, Jose Marigaz nao, joe, hori planteamentuan oso oso teorikoak direla.

—Klaro.

—Bai.

—Eta horik ez direla behera heltzen. O sea, ez direla gure herrietara heltzen. Azken finean, gure helburua zein da?

—Gutziz ados, gutziz ados.

—Ba gure helburua da, guk dekoguz 80 persona, 100 persona, 70 persona... Da: ba gure inguruko jente helduegaz hiru-lau bet eskursino ein, hiru-lau bazkari ein eta

bost-lau kursillo ein. Horretarako behar due eraldaketa, eztakit, kristonango eraldaketa bat behar da...? Joe, hori da gure egunerokotasuna. Guk behar duguna da jentea prest dauena beharra iteko etalau-bost persona aktibo ibiltea.

—Eginez lortzen dira edo egiten dira. Orduan, joe, ni, askotan, e, horrelako planteamiento teorikogaz eta hori... Ni oso kontrakoa izaten naz, ze azken baten, joder, e, a ver, guazen egunerokotasunea, guazen, e, kallera urtetan eta ia zer dauen... Orduen...

—Gutziz ados.

—Bai, ni erebe guztiz ados.

—Nik uste dot, behar duguna jentea beharra iteko prest eta... Eta gero, beharbada, laguntza puntual bat zeozer iteko, ba...

—Inspirazio pixka bat baina ya está...

—Por supuesto.

—Ya, ta listo.

—Eta gero, ba igual...

—Adibidez. Eta hoixe, ba Foru Aldundiagaz harremanak euki behar ditugunean, ba programak, e, errezea eta hori...». (DRB, 2023)

Beharrak **Bizkaiko Foru Aldundiko zein udaletako izapide eta justifikazioetarako plataforma digitalak hobetzeari** lotuta daude. Premiaz landu nahi dituzten oztopo digital nagusiak honako hauek dira: itxarote denbora, izapide guztiak bideratzeko orrialde ugariak eta prozesuaren etenaldiak. Ildo horretan, prest agertu dira plataforma horiek hobetzeko eta beren beharretara egokitzeko ekarpenak egiteko eta horretan lan egiteko.

«O sea, beste barik... Orduan, gure kasu konkretoan, guretzako ez da aldaketarik izan, ze bueno, ba gu bagatoz mundu batetik, ba egunero-egunero Excelak, Wordak eta horrelako kontuak, administrazioarekiko harremanak, e, e-mailez, zea, Internetez egiten ditugunak. Orduan, guretzat ez da aldaketa handia izan. Kontua da, hartu-eman hori, diputazinoagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz, Eusko Jaurlaritzagaz horrenbeste ez, baina diputazinoagaz... Es que zuek ezin dozue imajinatu Bizkaiko Diputazinuagaz digital... E, Internetbitartez harremanetan jartzea zein zaila dan. Zuek eztakizue zemat pausu eman behar diren zureizena jartzeko, beste barik. Orduan, hori da, joder, el mundo de nunca acabar. Eta sartzen zara bentana baten...». (DRB, 2023)<sup>xxvii</sup>

### 1.3. Gipuzkoa:

**Gipuzkoak oso errealitate desberdinak ditu, bai biztanleriari dagokionez, bai elkarten egungo egoerari dagokionez.** Parte-hartzaileek adierazi dutenez:

«Oso errealidade ezberdineko herrik die; herri batzutan die 1500 bat inguruko biztanleko herrik, eta beste herri horretan... o beste honetan, berriz, ba 250 biztanlekoak. Ordun, errealidade ezberdinak. Adibidez, honen herrian ez dago jubilatutako elkarerik, gurean bai, oraintxe ein berria, beste bi horiek ya beste eraketa bat dao e, baina bueno, pixkat bat hortik.» (DRT, 2023)



Gipuzkoan, **belaualdiarteko jarduera** asko egiten dituzte batez ere. Jarduera horietan, **belaualdi bakoitzaren trebetasunak hartzen dira aintzat, eta lankidetzan egiten da lan, aldi berean bizitzera edo informazioa gurutzatzera mugatu gabe.**

«Bueno, guk, e... gaztekin, e... beak antolatzen... guk antolatzeittugun gauzetan beak laguntzen digute, eta beak antolatzen dutenen guk laguntzen diegu. Baina gehienbat zuzentzen gea eskolako umekin. [ulergaitza] ttipi-ttapan, ia, gaur egin deu oinez hirugarrenaz eskolako umekin hirutan... hiru txanda ein dittu: bat zaharrenak, bat erdikok eta gaur txikinakin. Eta gero datorren ekainen 22n ingo dugu festa, bukaerako festa, baitare antolatzen dugu festa bat eskolako umekin. Gero asmoa daukeu pandemia aurretik eitte gendun sagar festa. Ordun, eskolako umekin jute giñen sagar biltzea, elkarten itte ginuzten sagar postrek, sagardosie, konpota, membrillue, dana... juntako emakumeko ta beste emakumezko lagunduta, eta gero ittegendun sagardoa eta... festa bat, bokaillok eta zeatu eta festa bat antolatze gendun. Gero pandemik eta utzita, lengo urtian ez gendun in, aurtengoako asmoa daukeu sagar bilketa eta elkarteko postrek eta hoeik ittekoa. Ya sagardona... Ya gaztekin hitzen ber deu, zeatik guk esaten deu guk lagundu eta zeatu eingo dioula, baino klaro, gu ya indarrakin da ya ez gea kapaz pisukinibiltzeko, ordun beak prest baldin badaude, ba antolatuko genduke berriz sagar festa, eta... gero, ba udaletxeekin oso relazio ona daukeu, proiektu asko... udaletxeekin proiektu asko itten ai gea, e, por ejemplo, herria bidelagun, bakarrik dauden ba, e, biu... zea din, alargunek dienak eta bakarrik eta kalea gutxi atutzen dienakin, ba astero-astero hasi gea kafe bat itten. Asteazkenetan, atsaldeko 17:00etatik ba 19:00ta o juntatzen die. Hasiran bi hasi zien, ta oain 10-11 bat juntatzendie.» (DRG, 2023)

Gipuzkoan, **transmisioa oso garrantzitsua** da komunitatean balioa sortzeko metodo gisa.

«Guk transmisioari garrantzi handia ematen diou eta indabare, lurre laiaz landu, laiaz, gero zea ein, garie ein eskolumekin, noski, ta eskolumekin, gero, garie jo, baita ere, jaso, jo, eta gero esan genion pasatu zala zea ta, ogie ein ta meriendakin bueltau. Ta garie ez bada, artoa ez baldin bada, patatak baldin badie, ba beak gero jangelan jaten dittuzte. Hori. Etabaita ere, lotura hori sortzeko, kalen bizitasun pixkat bat jartzeko, ba itten deun igual (datorrenhilen eingo deu igual, baino seguru irailan baietz), bingo irikie itten deu. Irikie; hoi da, eskolumentzako, aitte-amantzako eta atton-amonentzako.» (DRG, 2023)

Idiazabalen, gizarte langilearen, AGZren eta Udaleko teknikariaren (berdintasun teknikariaren) arteko **koordinazio komunitarioko esparrua** sortu da, ikuspegi komunitarioaren logika horren barruan lan egiteko.

«Bai. Bai, bueno, gure herrian, hilabeteoro eitten degu bilerea udaletxen izaten da, bertan elkartzten gea asistenta soziala, e, politikoa daona kargo horrena eta baita ere teknikaria, eta gero elkarte desberdinak. Zeintzuk? Bueno, gu, adibidez, jublatu bezela, gero dago, e, [ulergaitza] dira hori astearteoro, ba, ba laguntza behar duten jendekin itten da holakoibilaldi bat eta baitare barne, eta beste elkarteko pertsona batzuk, eta han informazioa ematenda zein... udaletxe alderditik, ze laguntza daren elkarte desberdinetako asistenta sozialak ere agertzen du zein dien herriko beharrak, e, eta hoi hilabeteoro ematen dan informazioa da, e». (DRG, 2023)

Hori guztia dela eta, **aldaketaren eta esku-hartzearen inguruko planteamendu komunitarioetara jotzeko interesa hautematen da**. Gipuzkoan, parte-hartze handiko eta belaunaldiarteko ardatz bat ikus daiteke, baina administrazio publikoekiko lankidetzari handiagoa behar da jarraitutasuna eta zeharkakotasuna planteatzeko, eta, aldi berean, adinekoentzako ekipamendu publikoak eta programa espezifikoak sortzeko. Eta, hori guztia, hainbat administrazio publikoren babesarekin, erantzukizuna udalera mugatu gabe, bere ezaugarriak direla eta baliabide urriak baititu:

«E, zea, gizarte sozialeko zeakin, asistentekin, eta politikoa eta teknikaria. Hilabeteoro. Herriko ze beharrak dare momentun, ze noaino iristen dan, zenei, zenbaitei laguntzen zaion... O sea, informazio guzti hori guri hilabeteoro pasatzen dizkigute.» (DRG, 2023)

## 10. EREDU ALDAKETA

Eredu aldaketen beharrari buruz kontsultatzean egiaztatu denez, gehienek uste dute **aldaketa gauza erreala dela eta aspalditik gertatzen ari dela, baina modu irregular eta desberdinean herriaren arabera**.

«—Nietzako aldaketarik handiena egon dana da azkenengo 10 urteetan, [ulergaitza], e, gestinoa elkartetan zelan aldatu den. Hemen urten daurie lehenaoko egon diezenak, aurretik egon diezenak, 20 urte, 25 urte... Dana idatzite eskuz, kontue, zera... Hori ya aldatu de. Gehien baten, %90ean aldatu de, Jaungoikoari esker. Ze, klaro, ezta bardin dana eroatea eskuz edo gestionetia aurretiko elkarte bat ya dekozunean, e, fitxiek, sozioan, bazkidean zerrendak eta dana ordenadorean sartute...

—Klaro, Excel bat... Bai.

—Uste dot hori saltu oso handie dala, bueno, dana. Nik ezautu daz, e, geure eskualdean jentia egon dana hogeitaka urte, ta klaro...». (DRB, 2023)

AGZen **eredu zaharraren eta berriaren arteko aldeari buruz** galdetzean, adierazi dute eredu tradizionalen zentroen jarduerak pertsona batzuen klub moduko batera bideratuta zeudela, eta konprometitu gabeko parte-hartzaile geldiaren profila aipatu da zenbaitetan.

“...pero es que lo que había antes es muy difícil de... de convencerle para que cambie.

- *Moderadora: ¿Y qué es eso que había antes?*

- Corrillo, un corrillo. Hay un grupito de diez personas que nos han dado guerra hasta... hasta que hemos tenido que hacer unas normas internas para el uso del local, o sea, que...

- *Moderadora: Sí, ¿de qué tipo de normas, por ejemplo?*

- Pues que cuando hay alguna actividad no se puede acceder a la sociedad, que los cafés no haya que llevarselos a la mesa, vamos...” (DRA, 2023)

Adinekoen profil berriak eta profil tradizionalerako desberdintasunak aipatu dituzte. Azpimarratu dutenez, **adinekoen profil berriak askoz prestatuago daude ikasketei eta bizi**

## **gogoetei dagokienez.**

“Igual no necesitan tanto ritmos tutelados, de alguna forma, sino que igual necesitan, pues, bueno, herramientas para poder autogestionarse su tiempo de ocio y su vida diaria. Entonces, yo, reconozco que ando ahí un poco perdido, porque no sé muy bien qué es lo que demandan, quiénes reciclan. Intuyo que pueda ir por ahí, pero vamos, más más no llego a ver ni me atrevo a comentar, porque no, no [ininteligible] lo desconozco, a mí me genera un poquito duda. Esta gente nueva que se va incorporando, qué necesita, ¿no? Qué demanda. Porque igual, por ejemplo, una estructura de una asociación como las que conocemos o como las que están entrando ahora, muy estructuradas, pues no renta. Él pues necesita igual un espacio donde haya una serie de, porque igual no tiene uno en casa, unos ordenadores donde pueda conectar y se pueda montar su viaje sin necesidad de tener que esperar a que la asociación le ofrezca uno. Entonces, no lo sé. Yo ahí ando un poco perdido, la verdad que sí”. (DRT, 2023).

**Adinekoen belaunaldi berriek askoz bizi proiektu gehiago dituzte, erretiroa gorabehera. Hori dela eta, zailagoa da zentroek profil berri horiei erantzutea, belaunaldien arteko eta bizimoduen arteko aldea handia baita.**

Adinekoen aurreko imaginarioan, pertsona batek erretiroa hartzen zuenean mugatu egiten zitzaizkion aukerak; lan bizitzatik «erretiratzeko» unea zen, eta atsedean, poz eta gozamenerako irudizko garai bat iristen zen. Hori dela eta, erabateko prestasuna zuen AGZen batzordeetan buru-belarri aritzeko, nahi izanez gero. Egungo belaunaldiak, berriz, «zahartze aktibo» kontzeptuaren adierazgarri diren herritarren parte dira. Jarduera, nahi eta konpromiso asko eta asko dituzte, eta, beraz, erretiroaren ondoren garrantzi handia hartzen du garapen pertsonalerako denborak. Ildo horretan, AGZen batzordeak eta elkarteak adinekoen eredu berri horren parte izan daitezke. Baina, jakina, lan espazioetan sartzen diren pertsonen denbora prestasun txikiagoa izango dute. Izan ere, beste ekintza ugari lantzen dituzte aldi berean.

«Eta ni baino jente gazteagoa badago jubilauta, jubilauen elkartean sartuta. 58, 59 urterekin. Horrek ez daka zerikusirik, e, oin dala bost urte egon da juntarekin... Ez pentsamolderik, ez pentsamoldea, ez bihar egiteko modua. Lehen, e, berba aituko izen naz, baino oin esan dozunez, joe, gu askotan ez dogu gauza asko egiten, gu geu, ba oso lanpetuta gauzelako beste kontu batzukin. Orduen, ez da berdin ni, e, presidente orain izatea edo nire izeko, 80 urterekin, oin dala bost urte. Harek beste zereginik ez zeukan juntan egotea baino etajuntara dedikatzea. Orduen... A ver, nik dedikatzen dautzat denbora juntari, baina nik beste milagauza daukadaz, orduan... Mmm, funtzionatzeko modua guztiz desberdina da, baina guztiz berdina da orain oso jente gaztea gauzelako. Klaro, ni jubilauta nago... Ni enago jubilauta, ni erdijubilauta nago. Orduan, ba 61 urterekin, 58rekin, 59rekin...». (DRB, 2023)

**Gaur egun, bizi unea hartzen da kontuan AGZetan sartzeko, erretiroa hartzeko adina baino neurri handiagoan.** Hori dela eta, elkarteetan sartzeko unea atzeratu egin da, eta zailtasunak daude adinekoen belaunaldi berriak AGZen proiektuarekin inplikaturik sentitzeko.

“- Sí, pero eso, por ejemplo, en mi pueblo, hay 100 u 80 o no sé cuántos hay, y en la última reunión estábamos 15. Y eso es como eso, y en la propuesta mía, mía o de algunos, que, yo me he armado, yo tengo 69 años, que no me he jubilado ahora. Yo

hasta ahora no he querido saber absolutamente nada de los jubilados. Yo reconozco. Yo no he querido saber nada, así de claro.” (DRG, 2023).

«—Bai, bai, ez... porque es que, neretzako realidadea hori da.

—Eta zergatik?

—Ba ez dolako beharrik ikusten.

—Beharra.

—Ez dolako beharrak ikusten, a ver, eskursio batea juteko o afari bat itteko o beste ekintza batzuk itteko eztauke nezesidadeik. [Elkarrizketa gainjarriak]

—Gaur egunen jendek gaitasune daukelako bea bakarrik ere hautza jun, honuntza jun, hau ikusi nahi det, beste eztaikit zer...

—Hoixe, hoixe.

—Eske pentsatu behar degu zergatik sortu zien zentroak. Garai baten, nun jendeaez zeuken aukera, ba itteko, ba gauza pilo bat. Hori erabat aldau da [elkarrizketa gainjarriak]. Ordun, gaur egun, beste... eman behar da beste aukera batzuk jendea erakartzeko. Ahora, zeinek[elkarrizketa gainjarriak]. Hori da. Hor dao koskea». (DRG, 2023)

“Solamente el comer, estar allí, con el bingo... esas cosas yo creo que ya tenemos que ir cambiando, y... y bueno, estamos en esa lucha en Zegama. En Segura, los jubilados están justo ahora queriendo hacerse con una nueva junta, y no ha sido nada fácil... Han tenido que ir tirando de la gente para que vaya a haber una junta nueva, porque llevaban ya 13 años los anteriores, ya tenían 80 y tantos años. Entonces, la realidad es otra. Tienen su local, es de la iglesia, pero bueno, pueden utilizarlo. Hay un bar allí, sí que funciona el bar. Funciona el bar y también tiene restaurant, o sea, un pequeño restaurante” (DRT, 2023)

“-Sí, sí, todo, porque nosotros, por ejemplo, que hemos..., ahora se ha disuelto el coro por falta de relevo, y... tengo una pena en el alma que para qué. Pero es que no, los jóvenes que no, que no, que no... Y yo: pero con lo bien que se pasa.

- Pero los jóvenes..., los jóvenes de 60 años ¿eh?

- Sí, sí, pero digo, con lo bien que se pasa... Y dicen, bueno, porque no sé qué, porque tal, porque cual. Claro, como yo digo, están todavía en una edad buena para ir por ahí, para todos los sitios, claro, si no aprovechas cuando puedes patear bien por ahí...

Eso lo he hecho yo también, claro. Jajaja. Y a mí me da una pena tremenda, tremenda, tremenda.” (DRA, 2023)

Gobernantza organoen ikuspegia, ordea, adinik handieneko belaunaldien beharrei erantzutera bideratuta dago nagusiki, eta nolabaiteko hutsunea dago belaunaldi berrien beharrak identifikatu eta haiei erantzunak emateko garaian, jardueri zein parte hartzeko moduei dagokienez.

Profil berrien premia testuinguru horretan, **rol aldaketa bat gertatzen hasi da adinekoen belaunaldi berrietan**. Ikus daitekeenez, AGZei gehien ematen zaien rola dibertimenduarena edo aisia sortzailearena da. Hala ere, **gaur egun, AGZetako eguneroko jardubide ugari ikusezinak dira, eguneroko bizitzan laguntzera edo arriskua dakarten egoerak** (bakardadeak, babesgabetasuna, osasuna eta abar) **prebenitzera bideratuta daude, eta babes eta prebentziorol bati erantzuten diote**. Pertsonen bizitzan babes komunitarioa

emateko rol hori sustatzea proposatu dute zenbaitek, rol horri agerikotasuna emango dion eta formalizatuko duen estrategia batean oinarrituta.

“No había una actividad muy formal y, bueno, pues en este momento estamos todavía aprendiendo caminos y intentando desarrollar proyecto (...)Entonces, nosotros consideramos que esto no es suficiente; o sea, es decir, que el ayuntamiento, hasta ahora, haya estado haciendo, pues una comida y una excursión, alegres y contentos, pero no es suficiente. Eh, a nosotros nos corresponde dinamizar e intentar desarrollar, entonces, bueno, pues ahora ya estamos abriendo vía con la diputación, ensayandocosas e historias de estas, e intentando pegar un asalto a la caja del ayuntamiento, también. Y, bueno, y ahí estamos”. (DRB, 2023)

Hainbat modutan lan egiteko ideiarene barruan, **elkarteetako bazkideak hobeto ezagutzearen garrantzia** aipatu da. Zenbaki baten ideiatik ateratzeko eta haien gaitasun eta interes guztiak kontuan hartzeko, bizitzan gustuko dituzten gauzak eta abar jasotzeko ahaleginetan ari dira.

“-...y sí que yo me doy cuenta de que solo participan en puntos concretos. Yo, por ejemplo, que lo estoy haciendo mal, yo cuando viene un afiliado o uno que se quiere afiliarse en mi casa o en la vuestra, a las Cuatro Torres de Vitoria, se le pregunta el nombre, DNI, foto de tamaño carnet y pagar 13 euros. Y yo estoy dándole hace tiempo mucha vuelta, de que dentro de eso deberíamos meter información adicional. ¿Qué quiero decir? ¿Tú qué has sido en tu vida? Has hecho pajaritos de papel, en el tiempo libre. Coño, hace pajaritos de papel, y luego, que haya alguien que se encargue de ir a buscar a esas personas, que son activas todavía...” (DRA, 2023).

**Aisiaz haratagoko lotura** baten ideia dago, eta hori da proposatzen duten pentsamolde aldaketaren oinarria.

“-Y luego, si en la comida hay baile, de puñetera madre. Pero es que yo sigo diciendo, nos tenemos que transformar.  
- Esa mentalidad hay que cambiarla también.” (DRA, 2023)

Profil desberdinen elkarbizitzaz ari garenean, belaunaldien arteko alde hori **kartetan aritzen den belaunaldiaren eta hitzaldietara joaten belaunaldiaren** binomiora mugatu daiteke, eta bi nahi horiek uztartu behar dira AGZ bat planteatzeko garaian.

“-Entonces claro, como hay esa mentalidad de muchas personas, hay voy a ir, “que yo no juego a las cartas, que yo no quiero, que no...”. Entonces hay gente que no le parece... mira, mañana mismo tenemos aquí una charla, un taller. Entonces, a ver, les parece que solamente es jugar a las cartas, ¿no? Hay más cosas.

(...)

- No, pero es... que a las cartas se puede jugar, que yo lo entiendo, que es un sitio para reunirse ellas mismas y me parece perfecto que jueguen a las cartas. Lo que pasa que hay que participar luego en las demás cosas.” (DRA, 2023)

Halaber, nolabaiteko **desadostasuna dago zahar etxe hitzarekin**, pentsatuta etxea gauza bat dela eta espazio hori gizarte zentroa dela, ez etxean bezala egoteko, gauzak egiteko eta aldatzeko baizik.

“- Lo que pasa que el centro de mayores u hogar de jubilados, que yo creo que eso de hogar de mayores, eso de hogar, hogar es mi casa.

- Ya.

- Y vale, hogar de jubilados también es la casa de los mayores, pero no sé, esa palabra del todo no sé si me... pero bueno. A ver, como siempre, tradicionalmente vamos a decir, o creo, que ha sido un lugar donde poder echar la partida. Lo que estás diciendo.” (DRA, 2023)

Dena den, eredu aldaketaren ideia hori ez da ez uniformea, ez homogenea. **Batzuek uste dute eredu aldaketak batzordeen belaunaldi aldaketa esan nahi duela**, eta pentsatzen dute aldaketa horrekin iritsiko direla gainerako aldaketak.

“Yo voy a hacer una broma, eh. Simplemente, lo que tendría que venir es un cambio de las juntas, porque llevo yo 12 años o 13... 13. Sobre todo, ese cambio que estaría bien con gente nueva, y luego ya vendrían esos otros cambios seguramente. [conversaciones superpuestas] Ay, Luis también lleva muchos años y otros que están aquí también muchos... 13 años.” (DRG, 2023)

“Hombre, vemos que algo hay que hacer para que las nuevas generaciones se comprometan.

- Para atraer también...

- Hay que atraerles de alguna manera, no sé cómo” (DRG, 2023)

Ikusten denez, eredu aldatzeko ahalegina egiten ari direnen kasuan, **ohikoa da deserosotasun eta gatazka sentazioa sortzea «funtzionatzeko moduen» eta «begiraden» artean.**

“-Pues porque han ido toda la vida, o sea, me estoy refiriendo ahora en concreto, han ido toda la vida a por la partida.

- Claro.

- *Moderadora: ¿A jugar la partida?*

- Toda la vida.

- Por tradición.

- Sí.

- Y nosotros les hemos tocado las narices con las cartas y...

- Y ha habido lío.

- Ha habido lío.” (DRA, 2023)

Ikusten denez, eredu aldaketak **berriz definitzen ditu belaunaldi arteko jarduerak**. Kontua ez da, besterik gabe, gazteek eta adinekoek elkarri laguntzeko moduko ekintzak sortzea. Hori ez da belaunaldiartekotasuna.

«Bat da, e, bueno, guri gertau zaiguna ta nik askotan ikusten deneta. Por ejemplo, gu gauz bat... e, ekintza bat antolatzen de, laguntza ber baldima gazteie esaten dieu ta gazteek laundu itten dute. E, beak antolatzen dutenen guri laguntza eskatzen baigu, guk beaiitten dieu, baino nik askotan beaiei esan dietena, ta nik ikusten detena da, iritsi behar deula... eznik ekintza ein ta zuk laundu, zuk ekintza itten laundu, baizik bion arten ekintza batzuk antolatu, ta hoi da kostatzen ai dana, ta nik uste horta jun behar deula». (DRG, 2023)

Azkenik, adierazi da **eraldaketa eredu orokorrez gain badaudela lurralde mailan espezifikoki**

**garatzeko moduko aldaketak**, arestian alderaketari buruzko atalean azaldu dugunez. Zehazki, ikus daiteke Gipuzkoako AGZetan hobekuntza bide luzea egin behar dela oraindik erakundeen babesari eta bi alderdien arteko lankidetzari eta elkarrizketei dagokienez. Bizkaiaren kasuan, funtsezko eragileak izan daitezke Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dituen dirulaguntzetarako plataforma digitalak hobetzeko, eta norabide horretako ekarpen eta ideia ugari detektatu dira. Araban, bestalde, jarduera komunak egin behar dira, eta komunitatea berriz aktibatu behar da ekintza jendetsuen inguruan; horren bidez, hain barreatuta dagoen eta lurralde barruko mugikortasunerako hain baliabide publiko gutxi dituen lurralde horretan dagoen isolatze eta sakabanatze egoera gainditzeko administrazioek zer laguntza eskaintzen dituzten aztertu ahal izango da.

---

## ERANSKINA, ITZULPENAK

### 1. LANDA TESTUINGURUA: BIZTANLE KOPURU TXIKIA ETA ASOZIAZIONISMOA

«Hau da, horrelako beste bat da, niri ere zalantzak sortzen zaizkit funtzionamendu horrek noiz arte iraungo duen pentsatzean. [Elkarrizketa gainjarriak] herrietan, hortxe dabilta, zer edo zer egin nahian, baina oso zaila da, 250 biztanlerekin...».  
(DRT, 2023)

«Nik, adibidez, uste dut badagoela modua landa eremuan irtenbideak bilatzeko. Adibidez, haurrei autobusa jartzen zaie ikastetxera joateko. Zergatik ezin da herrira ekarri autobus hori egun batean (edo bitan edo gehiagotan) gure adineko pertsonentzat?». (DRG, 2023)

«Bai, gurea... Ea, gure herriak oso gauza espezifikoak ditu, eta igerileku horretan ikasi behar dugu igeri egiten, ezta? Izan ere, adibidez, ez du solairu eraikinik. Orduan, adinekoak baserrian, etxe isolatuetan bizi dira, eta oso autonomoak dira. Hau da, ez dabilta “ea egunkaria irakurtzera irteten naizen eta plazan kafea hartzen dudan” eta horrelako gauzetan. Beraz, dagoen eskaria, kanpora begira... Bada, tira, zehaztu beharra dago. Gero, beste gai hori ere, bada... Herrigune edo hirigunerik hurbilenetik 3 km-ra dago. Udalak bere garaian taxi bat jarri zuen adinekoentzat, astean bitan: astelehenean —merkatua dagoen egunean— eta ostiralean eta ez dakit zer. Bueno. Udalak gauza batzuk sustatu ditu, baina irekiak, hau da, ez-espezifikoak, ezta? Baina, tira, pilatesa dela... Gimnasioa, adibidez, adinekoei ez kobratzea lortu genuen. Horrelako gauzak, ezta? Baina ez dago jarduera espezifiko edo egituraturik “honetan edo hartan pentsatzen”. Orduan, bueno, bada, hori da... Hori da gure beharra». (DRB, 2023)

«Oraintxe bertan, elkarteak, bada, 70 bazkide ditu, baina gure herriko biztanleen % 25-30 dira. Herri txikia da, ez da 400 biztanlera iristen (...) Ez dugu lokal propiorik, jarduera motak ere ez baitu behar, baina, Udaletxeko kultura aretoa dugu eskura». (DRB, 2023)

«Eta hemen ere autoz, hirugarren adinekoen ikasgelak egiten direnean izan ezik, bai? Erretiratuen elkarteak hirugarren adinekoen ikasgeletan laguntzen du. Orduan hor bai..., ea, egin ziren azken aldiak ez zen garraio biderik jarri, baina jenderik ez zegoelako; orduan, etorri ziren bakanak beren ibilgailu propioan etorri ziren. Baina, tira, aurten, adibidez, ez dugu hitzaldirik egin..., hau da, Lardero Egunean hasten gara gutxi gorabehera». (DRA, 2023)

«Eta aurten bai, eguneko zentrokoak ekarri ditugu, hau da, eguneko zentrorra joaten direnak, baita egoitza komunitarioan bizi direnak ere...»



---

—Moderatzailea: *Eta “ekarri ditugu” diozunean, zer da “ekarri ditugu” hori?*

—Tira, eskatu dugu anbulantzia ekar ditzaten, anbulantzia ez, autobusean, autobus egokitan». (DRA, 2023)

## 2. AGZ-EN ROLAK ETA FUNTZIOAK

«... zentro horretan ongi pasatzea da helburua; gizarte harremanak izatea eta ongi pasatzea». (DRT, 2023)

«Tira, elkarbizitza zentro bat da, beste pertsona batzuekin elkartzen zara, eta...  
—Elkartzeak.  
—Elkartu egiten zara.  
—Elkartzeak, elkartzeak». (DRA, 2023)

«Espazio komunitario horrek ezaugarri bat du: adinekoei zuzenduta dago (horrek dakarren esparru zabalarekin), eta, bueno, harremanak ezartzeko, sozializatzeko, jarduerak egiteko aukera dute bertan... Tira, laguntza txiki bat eman, logikoki eta ziur aski astialdi handiagoa izango duten bizitzaren aldi hori bideratu (ez dakit hitz egokia den hori) edo optimizatu edo garatu ahal izan dezaten». (DRT, 2023)

«Beharra duten pertsonak, nolabait esateko, berokuntza oso garestia baita, bakardadea... Orduan, bueno, badira batzuk berogailua eguerdiko 12:00etan jartzen dutenak, eta gero kartetan jokatzera etortzen direnak». (DRG, 2023)

«E..., egia esan, ez dugu horrelako parte-hartzea, adinekoek egin dezakegun transmisioari lotua, baina asko laguntzen dugu. Ibaia garbitu, maratobietarako mendia garbitu, lan egin... Guk lan egiten dugu». «Lehen genuen zentroan bai, bagenuen, haurrak eguneko zentrori etortzen ziren abestera, gu ondoan geunden... Han lotura handiagoa zegoen. Pandemiarekin egon gara, pandemiarik gabe, eta gaizki... Eta gauza asko... ohituraren rol hori amaitu egin da. Baina, tira, jaietan hartzen dugu parte, e, Korrika iristen denean... Esan nahi dut parte-hartze handia dagoela herrian, baina hark esaten zuena, begira, hori ez». (DRG, 2023)

«Agian, gazteenek izan dezaketen pertzepzioa izan daiteke: “hortxe doaz adinekoak (zahar hitza ez zait gustatzen), baina horixe... [ulertezina] adinekoak, eta, bo, kartetan jokatu baino ez dute egiten. Ez dute beste ezer egiten. Orduan, bueno, galdu egiten da, bueno, harremanak ezartzeko eta bizitza garatzeko guneko komunitarioaren eduki guztia, nik uste. Nik uste dut gero eta neurri txikiagoan agertzen dela, e, baina pertzepzio hori nik uste dut badagoela oraindik». (DRT, 2023)

«Dena genuen zentro berean: eguneko zentroa, zahar etxea, medikua... Erabilera anitzeko zentro batean zeuden denak. Eguneko zentroa handitu egin da eta leku honetara lekualdatu behar izan da. Zahar etxeak beste lokal batera joan behar izan dute, eta orain daude... Bueno, Udalak lokal bat jarriko die, baina, jakina, izapideak egiten ari gara... Orduan... Haiek behin eta berriz eskatzen ari dira lokal berri bat, lokal

---

berria behar dute, baina zein izango da lokal horren helburua? Hau da... Orain arte bezala funtzionatuko al du, elkarte modura?». (DRT, 2023)

«Txoko bat da. Hau da, kontua da txoko horretan, ordutegiaren arabera, jarduera batzuk daudela. Baina, jakina, bazkaldu ere egiten da. Larunbat batean, adibidez, "aizu, bazkari bat egingo dugu". Bada, nik nire senideekin bazkaria egiten dut. Erreserba egin eta bazkaria egiten dut. Orduan, alde batetik txokoa da, bestetik elkarte... zail samarra da zehaztea. Haiei galdetzen badiegu, elkarte da, baina, ikusten dudanean, ez da askotan gertatzen, baina gertatzen denean... azkenean, garbitzailea Udaletik joaten da. "Ni joan izan naiz, eta, uf, plater piloa zegoen..." Hau da, bazkaria egin dute, eta oso ongi iruditzen zait. Izan ere..., txoko baten antzekoa da, baina, tira, nola kokatzen dugu, ezta?». (DRT, 2023)

### 3. ZENTROETAKO EGUNEROKO BIZITZA

#### 3.1. JARDURERAK

«Guk, zehazki, badugu... elkarte bat, esan genezake, bai?Elkarte eta [ulertezina] Udalarena den eraikin batean daude... eta, bueno, lehen solairuan zahar etxea dago, eta elkarte bat da». «Elkarte hori dago, baina gero jarduerak herri osoan egiten dira, baita eskualdean ere, edota Arabara joaten dira ez dakit zer upeltegitarra edo ez dakit zer egitera. Hau da, gero... Hots, ez du inolako zerikusirik, Kantujirako entseguak ere bertan egiten baitituzte, eta hilabeteko azken asteko ostegunean irteten dira». (DRT, 2023)

«Egia da pandemiaren aurretik bazegoela, bueno, laguntzen ari ginen, gure programa genuen [ulertezina], hau da, jarduera oso handia zen, neguko hilabete guztietan, baina pandemiak geldialdia ekarri zuen toki guztietan bezala, eta gero berreskuratu egin da, baina ez da berreskuratu..., agian hitza ez da "intentsitatea", erritmo hori baizik. Orduan, nik uste dut denok konturatu garela; elkarte, han [ulertezina] elkarte honekin lanean, agian gehiegi ginkargatzen ari ginen. Orduan, bueno, interesatzen zaizkien gai batzuk pixka bat lantzen ari dira orain, lehen aipatu dituzunak: osasuna, elikadura, informatika... orduan gauza txikiagoak dira». (DRT, 2023)

«Elkarteak interesgarritzat hartzen dituen jarduerak egiten ditu, eta ondoren, beste erakunde horiei [ulertezina] ez dauden edo egin daitezkeen hainbat jarduera proposatzen zaizkie, eta, bueno, bi [ulertezina] horien arteko nahasketa bat da pixka bat». (DRT, 2023)

---

## 3.2. BOLUNTARITZA

«— Guk ezin dugu egin Ordizian eta Beasainen egiten dutena. Horiek handiak dira, baina... Boluntarioria badago.  
— Bai, baina gu gutxi gara eta beti berberak...  
— Horregatik, oso zaila, oso zaila...  
— Hori gertatzen da. Boluntarioak beti direla berberak; boluntarioak janaria banatzen, janaria biltzen ere aritzen dira... boluntarioria lan handia egiten dute. E..., ez dakit zer esan behar nuen». (DRG, 2023)

## 3.3. KAFETEGIA

«Bada, bai, egia da adinekoentzako zentroak, hemen, Araban bederen, taberna bati, kafetegi bati lotuta egon izan direla beti...». (DRT, 2023)

«Guk ez dugu tabernarik, elkarte bat da, baina ez dugu tabernarik, baina kafeak, garagardoak saltzen ditugu, eta ardoa gehienez. Ezin dugu taberna bat kudeatu, ez dugu baimenik, baina hori saltzen dugu.  
— Moderatzailea: Eta zuen artean saltzen duzue, hau da, zuek..., ez da langile bat, baizik eta...  
— Batzordean dagoenak kafea egiten du eta...  
— Horixe.  
— Eta orain, behintzat, etorri egiten dira eta eraman egiten dute; lehen eraman beharra zegoen». (DRA, 2023)

«— Ea, hemen makina hori dugu, kafe bat hartu nahi duenak 50 zentimo ordaindu behar du eta kafea jartzen du. Hortxe daude kapsulak, eta kito. Eta fidatu egin behar dugu, kafe bat hartu dudala, bi hartu ditudala, ordaindu dudana ala ez dudana ordaindu. Azkenean... Eta hori eta ura baino ez dugu, argi eta garbi, hemen ez baitago besterik...». (DRA, 2023)

«— Moderatzailea: Eta nor arduratzen da kafe horiek egiteaz?  
— Bada orain, azken aldi honetan, boluntarioak eskatu dituzte, boluntarioak eskatu dituzte, adibidez, larunbat arratsaldeetan, konpromisoa hartu duena egon dadin. Eta igande goizetan. Bestela, bada jende talde bat, beti berdina dira, beren orduak dituzte, beraiek zerbitzatzen dituzte gauzak, beraiek... taberna bat da, taberna batek bezala funtzionatzen du. Eta oraintxe bertan, ea...  
(...)

— Moderatzailea: Orain arte nor arduratzen zen irekitzeaz? Nola egiten zen hori?  
— Bada beti adinekoren bat egoten zen, tira, adinekora, erretiratu berria, hor sartzen zena eta aurrera egiten zuena.  
(...)

---

- Izan ere, izan da jendea, begira, beltzarana, haren senarra, urteak eta urteak eman zituen, beste herri batetik etorri zen gizona, baina erretiratu aurretik ere askotan etortzen zen. Erretiratu egin zen, eta, gizon horrekin, tabernak aurrera egin zuen... lanegunetan, tira, igandeetan ez hainbeste, ezta? Izan ere, beti egon dira boluntarioak. Baina, jakina, jendeak ere, boluntarioarena...». (DRA, 2023)

«—Moderatzailea: Eta nor arduratzen da kafe horiek egiteaz?

—Bada orain, azken aldi honetan, boluntarioak eskatu dituzte, boluntarioak eskatu dituzte, adibidez, larunbat arratsaldeetan, konpromisoa hartu duena egon dadin. Eta igande goizetan. Bestela, bada jende talde bat, beti berdinak dira, beren orduak dituzte, beraiek zerbitzatzen dituzte gauzak, beraiek... taberna bat da, taberna batek bezala funtzionatzen du. Eta oraintxe bertan, ea... (...)

—Moderatzailea: Orain arte nor arduratzen zen irekitzeaz? Nola egiten zen hori?  
—Bada beti adinekoren bat egoten zen, tira, adinekoa, erretiratu berria, hor sartzen zena eta aurrera egiten zuena.

- Izan ere, izan da jendea, begira, beltzarana, haren senarra, urteak eta urteak eman zituen, beste herri batetik etorri zen gizona, baina erretiratu aurretik ere askotan etortzen zen. Erretiratu egin zen, eta, gizon horrekin, tabernak aurrera egin zuen... lanegunetan, tira, igandeetan ez hainbeste, ezta? Izan ere, beti egon dira boluntarioak. Baina, jakina, jendeak ere, boluntarioarena...». (DRA, 2023)

«—Bai, hark ongi esan duenez, gu gure herrian, agian da (lehen hitz egin duguna), e... Ea, gure lokalak sukalde txiki bat du, barra bat du, baina bazkideak txartel elektronikoko batekin sar daitezke nahi dutenean. Orduan...  
—Bai, txoko batean bezala.

Bai, esan duzun bezala, txoko batean bezala esan duzu lehen, bai.  
—Txoko bat da. Hau da, kontua da txoko horretan, ordutegiaren arabera, jarduera batzuk daudela. Baina, jakina, bazkaldu ere egiten da. Larunbat batean, adibidez, “aizu, bazkari bat egingo dugu”. Bada, nik nire senideekin bazkaria egiten dut. Erreserba egin eta bazkaria egiten dut. Orduan, alde batetik txokoa da, bestetik elkarte... zail samarra da zehaztea». (DRT, 2023)

## 4. GOBERNANTZA ETA PARTE HARTZEKO EREDUAK

«2019an elkarte berrantolatu genuen, aurretik zegoena ahuleziaz hil baitzen; zeudenak hil egin ziren, eta hura geratu zen, bada...». (DRB, 2023)

«—Oso parte-hartze txikia.

— Bai.

—Eta laguntza eskatzen duzu eta ez dizu inork laguntzen.

—Eta ez dute... parte hartzen, nik ikusten dut hori, eta uste dut... esan behar dut gustatzen zaidala jakitea zer dudan...». (DRA, 2023)

- 
- «—Moderatzailea: Orain arte nor arduratzen zen irekitzeaz? Nola egiten zen hori?  
—Bada beti adinekoren bat egoten zen, tira, adinekoa, erretiratu berria, hor sartzen zena eta aurrera egiten zuena.  
—Moderatzailea: Jakina, baina esan nahi dut, giltza... ez zenuten denok izango, ezta?  
—Ez, ez, ez.  
—Moderatzailea: Pentsatzen dut izango zirela... Batzordekoak.  
—Izan ere, izan da jendea, begira, beltzarana, Marijeren senarra, urteak eta urteak eman zituen, beste herri batetik etorri zen gizona, baina erretiratu aurretik ere askotan etortzen zen. Erretiratu egin zen, eta, gizon horrekin, tabernak aurrera egin zuen... lanegunetan, tira, igandeetan ez hainbeste, ezta? Izan ere, beti egon dira boluntarioak. Baina, jakina, jendeak ere, boluntarioarena...». (DRA, 2023)
- «— Bai, baina guk, gizarteak bezala, aldatu egin behar dugu, atzetik datozenentzat erakargarria izan dadin. Nola? Ideiarik ere ez.  
— Aizu, erakargarri jartzen dugu; jarduera guztietan ematen dute izena.  
— Bai, oporretara joatea.  
— Jakina, erakargarria da.  
— Baina konpromiso sozialik ez dago. Ez dago.  
— Nik ikusten dudana da, bueno, gure belaunaldian orain baino solidarioagoak ginela». (DRG, 2023)

## 5. ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIKO HARREMANA

«Gauza batzuk elkarren artean egiten ditugu biok, hala nola baten edo bestearen ordainketa, eta gero, halaber, elkarrekin egiten dugu, bada, urte osoan oroimen ikastaroa dugu, esango genuke, astero da. Orduan, bada, horixe, kontratazioa Udalak egiten du, baina lekua, espazioa, zahar etxea da. Orduan, egiten ditugu, horrela, hainbat ikastaro, eta Udalak, esango genuke, kudeaketa, ordainketa eta kontratazioa egiten ditu, baina gainerako guztia haiekin egiten dugu. Hau da, haiek kartelak jartzen dituzte, eta denon artean erabakitzen dugu hau egin edo bestea egin... Elkarrekin, esango genuke, bai. Eta, bestalde, jarduera piloa dute, baina nahasketa da pixka bat». (DRT, 2023)

«Orduan, bada, tira, azkenean administrazioa aldatzen ari da, prozedurak aldatzen ari dira, gizartea ere bai, eta haiek ahal dutena egiten dute; asko da egiten duten guztia, baina, jakina... Baina gauza horiek, bada, tira, badute... Azkenean guk goian, bigarren solairuan, eguneko zentroa dugu. Orduan asko igotzen dira, jarduerak egiten dituzte, abestera joaten dira, ez dakit zer egunetan txokolate jana egiten dute, gaztainak eramaten dizkiete... Hau da, hori guztia oso ongi, baina gero, esango genuke barruko izapideak, prozedurak, gauza horiek... bada orduan bai, laguntza behar dute, eta, bai, badute beste behar mota bat». (DRT, 2023)

---

«Animatzaile soziokulturalak elkarte guztiei, partikularrei, guztiei laguntzen die edozein gauza, edozein jarduera egiteko eta kudeatzeko garaian, baita oraintxe aipatu duguna ere, dirulaguntzena, hau da... Eta arazoren bat baduzu, berehala laguntzen dizu, tira, lagundu egiten dizu benetan, hau da, joaten zara eta egiten dizu...». (DRA, 2023)

«Bada dirulaguntza bat ematea, e, legezko ordezkaria izatea (baimendua, e, administrazio elektronikoaren gairako) eta, bueno, hori, laguntzea, ba, hainbat forotan, zuekin egon direnean edo beste foro mota batzuetan, haiekin egotea eta... la-ia beste bat gehiago izatea... Bat gehiago. [Ulertezina], nik uste dut hori dela... interesgarria, egokia, haiek beste bat gehiago zarela ikustea, ez administrazioa. Tira, horretan eragin handia du batzordean edo elkartean dauden pertsonekin *feelinga* eta giro ona izateak». (DRT, 2023)

«Nik uste dut laguntzea dela. Laguntzea izan daiteke, ba hori, jaso duten dirulaguntzaren urteko justifikazioa haiekin egitea, hau da, hori egiten laguntzea, edo argazkien aurkezpena egin behar dutenean laguntzea, haiekin patatak zuritzen aritzea, Thermomixean mozten, hau da, ez dakit nola esan, patatak egiteko [entzungaitza]. Alegia, batetik bestera joan daiteke, kartel bat egitera edo antolatzerara, eta esan: “Alazne, hau egin nahi dugu, eta ateratzen zaizkigun kartelak ez zaizkigu asko gustatzen, eta horrela. Inprimatu diezagukezu eta kartel txiki bat egin diezagukezu?”. Ba nik uste dut hor lagundu behar dela. Edo “bartzari bat egin behar dugu; axola al zaizu aurrekontuak eskatzea? Beharbada zuek badakizue zer enpresa dabiltzan horretan”. Hau da, horrelakoak. Hau da. Baina gero Excel bat bidaltzen dizute tiket guztiekin, eta “Alazne, inprimatzea baino ez da, ongi?” Eta dena egina dute... makina batzuk dira gero. Batzuk behintzat. Baina nik uste dut, ba hori: haietako bat gehiago izatea, ez gorago, ez beheago, hau da, hori, haiekin ibiltzea eta batzordeko kide bat gehiago izatea. Hau da, azkenean, nik uste dut hori dela. Joan, lagundu eta kito. Eta beharren bat badute, are hobeto, lagundu eta... ba, gustatuko litzaidake aurrekontu handiagoa izatea, baina hori denok, nik uste. Baina bestela, niretzat hori da, hots... Ba haiekin elkartzea eta “Bueno, zer egingo dugu? Zer ikusten duzue aurten egiteko? Zer egingo dugu hiru hileko honetan? Ikusten al duzue beharren bat?2. Horrela pixka bat». (DRT, 2023)

## 6. EKONOMIA

«Nik, tira, uste dut ongi gaudela, ez ditugula baliabide ekonomiko gehiago behar; funtsean, elkarteak bere finantzaketa propioa du, bere diru sarrerekin eta jasotzen dituen dirulaguntzekin. Ez dago arazo ekonomikorik. Ildo horretan, uste dut... edo agian gure egoera zertxobait hobea da, baina, tira, ez dut hor arazorik ikusten, orduan bada...». (DRT, 2023)

---

## 7. ESPAZIO FISIKOA

«Bueno, gu, pixka bat, borrokan ari gara, nolabait esateko. Ea, guri gertatu zitzaigun oso zentro ona genuela, gune bat, ez dakit zenbat metro koadrokoa, barra majo batekin... eta ondoan genituen: eguneko zentroa eta, e, kontsultategi medikoa. Orduan, bueno, espazio fisikoaren beharragatik, eguneko zentroak erabiltzaile kopuru handiagoa eskatu zion Aldundiari. Eta, bueno, ba guk, gure borondate onarekin, zer egin genuen? Atea ireki eta alde egin genuen. Eta COVIDa etorri zen. Baina, jakina, guk alde egin genuen nora esan gabe. Izan ere, COVIDaren garaia izan zen. Orduan, bi urte joan dira ahaztu gintuztenetik, eta borroka bat hasi dugu, borroka bat, borroka bat... eta zenbaitetan elkarrizketak beroegiak izaten dira. Baina, tira, harremanak onak dira...». (DRG, 2023)

«Bada orain, azken aldi honetan, boluntarioak eskatu dituzte, boluntarioak eskatu dituzte, adibidez, larunbat arratsaldeetan, konpromisoa hartu duena egon dadin. Eta igande goizetan. Bestela, bada jende talde bat, beti berdina dira, beren orduak dituzte, beraiek zerbitzatzen dituzte gauzak, beraiek... taberna bat da, taberna batek bezala funtzionatzen du. Eta oraintxe bertan, ea...». (DRA, 2023)

## 8. ANIZTASUNAK

«—Moderatzailea: *Eta ba al daude beste herrialde batzuetakoak diren eta gure herrietan bizi diren adinekoak?*  
—Elkartean ez.  
—Guk perutar bat fitxatu dugu.  
—Moderatzailea: *Hara... Eta joaten al da zentrora?*  
—Ez, izena eman du, baina ez da joaten. Baina ez da joaten.  
—Moderatzailea: *Baina oraindik ez da animatu...*  
—Bada zerbait». (DRA, 2023)

## 9. ERREALITATEAK ALDERATZEN

### Araba; Arabako Mendialdea

«... landa ingurunea, gutxi baitira. Gutxi eta herri askotakoak». (DRT, 2023)

«—Bizitza... asko egiten dut, nire bizitza soziala beste herri honetan dago. Nire herria txikia da. Pandemiaren aurretik, bizitza soziala genuen; pandemiak dena lapurtu digu. Hortaz, gizarte zentro bat dago, oraintxe bertan batzorde berria sortu da, eta astelehenean bilera batera deitu digute. Izan ere, orain arte izan duena baino bizitza sozial handiagoa eman nahi diote, orain arte zelako, esan dezagun, bazkariak, afariak... Ni Antoñanako emakumeen talde batekoa naiz, eta gimnasia egiten genuen, yoga egiten genuen, baina gertatzen dena da herrietan jendea zahartu egiten dela eta ez dagoela erreleborik. Ez dago erreleborik, gure elkarteaz ari naiz. Badago jende

---

gaztea, baina gure elkarreak dagoeneko ezer ez. Eta, dirudienez, gizarte zentroak bultzada bat eman nahi dio, esan dezagun. Beraz, gustura etorri naiz bilera honetara, eta hemendik urritik aurrera han egiteko moduko zerbait ateratzen badut, bada zoragarria irudituko litzaidake». (DRA, 2023)

«—Ez. Badakigu badaudela, baina... Etxekoandreak daude, eta gu, eta etxekoandre gehienak erretiratuekin daude, hau da... Baina ez dago harreman handirik. —Ez dira nahasten, egia da». (DRA, 2023)

«—Ez, ea, esaten ari naizena, hainbat herrirekin gaudenez gero, bada aldi berean... Ba al dakizu zer gertatzen den? Ba hemen, adibidez, bueno, ni Emakumearen Kultura Elkartean ere banago, Maria Luisa ere Emakumearen Kultura Elkartean dago, eta, aldi berean, elkar hori dago, tira, beste hori..., orduan elkar ezagutzen dugu, eta zer gertatzen da? Irakurketa feministako klubera joaten gara, eta han beste herri batzuetako jendearekin egoten gara, herri honetako eta hartako jendearekin, elkartu egiten gara..., beste herri horretakoekin, eta horrelako jende asko eta askorekin. Eta orduan, elkar ezagutzen dugunez gero, ba, askotan egiten diren gauzei buruz hitz egiten duzu, toki batean egin diren gauzei buruz, guk hemen egin ditugun gauzei buruz; beraz, badugu harremana, badugu..., eta gonbidatu egiten ditugu, adibidez... Nik egin nuen..., agian entzun didazu, nik hedapen talde bat egin nuen, whatsapp-eko hedapen talde bat, eta kartelak eta abar bidaltzen dizkiot jendeari, eta ez dugu hemen soilik finantzatzen; herri horretan zerbait egiten badute, herri horretan beste horren berri badut, esaten badidate, aizu, zer iruditzen..., nik bidali egiten dut, baliteke pertsona batzuentzat interesa izatea, hortaz...». (DRA, 2023)

«Eta, tira, ni ere elkartekoa naiz, eta etortzen naiz kartetan jokatzera, emakumeekin, eta saiatzen naiz nire aldetik... ahal dudana egiten, eta inor ez dadila kanpoan geratu, kupoak eta hori guztia egiten direnean, eta, bueno, oso gustura etortzen naiz, niri gainera gustatu egiten baitzait jokatzera, eta hori dirurik jokatzera ez dugula kontuan hartuta; baina, tira, dirua jokatu bagenu, hemen izango litzateke...». (DRA, 2023)

«—Bai.

—Emakume gaztea ez da sartuko, ez.

—Nahiago dute plazan egon...

—Bai.

—Bai.

—...Nahiago dute kafe bat hartu, nahiago dute... edozer gauza, beste jarduera batzuk» (DRA, 2023)

«—Horretara noa, zuk bilatu zerbait duen norbait, motibatu, motibatu. Begira, bada horixe, “eltzegilea naiz, txongilak egitea gustatzen zait edo txongilak egiteko gogoak izan nituen, goazen txongilak ikustera”. Erakutsi txongil piloa, beste orrialde batean sartuko da, beste batean, eta txongilei buruzkoan sartzean erabilera ikasiko du». (DRA, 2023)



---

## 10. EREDU ALDAKETA

«—...baina lehen zegoena oso zaila da... aldatzeko konbentzitzea.

—*Moderatzailea: Eta zer da lehen zegoen hori?*

—Taldetxoa, taldetxo bat. Badago hamar pertsonako talde bat lanak eman dizkiguna... lokala erabiltzeko barne arau batzuk egin behar izan ditugun arte, hau da, zera...

—*Moderatzailea: Bai, zer arau mota, adibidez?*

—Ba jardueraren bat dagoenean ezin dela elkartera joan, kafeak haiei mahaira eraman behar ez izatea...». (DRA, 2023)

«Agian ez dituzte hainbeste behar tutoretzapeko erritmoak; agian, ba, bueno, tresnak behar dituzte beren aisialdia eta beren eguneroko bizitza autokudeatu ahal izateko. Orduan, nik, onartzen dut galdu samar nabilela, ez baitakit ongi zer eskatzen duten. Susmoa dut hori izan daitekeela, baina, tira, gehiago ezin dut ikusi, eta ez naiz hitz egitera ausartzen, ez baitut, ez [ulergaitza] ez dakit, niri zalantza sortzen dit pixka bat. Sartzen ari den jende berri horrek zer behar duen, ezta? Zer eskatzen du? Agian, adibidez, ezagutzen ditugunak edo orain sartzen ari den jendea dutenak (oso egituratuak) bezalako elkarte baten egitura bat, bada ez da egokia.

Agian gune bat behar du hainbat ordenagailurekin, beharbada ez duelako bat etxean, ordenagailu batzuk konektatu ahal izateko eta bere bidaia antolatu ahal izateko, elkarteak bidaia bat eskaini arte itxaron behar izan gabe. Beraz, ez dakit. Ni galdu samar nabil, egia esan». (DRT, 2023)

«—Bai, baina hori, adibidez, nire herrian 100 edo 80 edo ez dakit zenbat dauden, eta azken bileran 15 geunden. Hori da egoera, eta, nire proposamenean, nirean edo batzuenen, eta nik 69 urte ditut, ez dut gaur erretiroa hartu. Nik orain arte ez dut ezertxo ere jakin nahi izan erretiratuaz. Onartzen dut. Ez dut ezer jakin nahi izan, argi eta garbi». (DRG, 2023).

«Bazkaltzea, han egotea, bingoarekin... gauza horiek nik uste dut aldatu egin behar ditugula eta... eta, bueno, borroka horretan gaude Zegaman. Seguran, erretiratuak orain ari dira batzorde berri bat sortu nahian, eta ez da batere erraza izan... Jendeari tiraka aritu behar izan dute batzorde berri bat osatzeko; izan ere, aurrekoek 13 urte zeramatzaten, jada 80 urte baino gehiago zituzten. Hortaz, errealitatea bestelakoa da.

Beren lokala dute, elizarena da, baina, tira, erabil dezakete. Taberna bat dago han, tabernak funtzionatzen du. Tabernak funtzionatzen du, eta jatetxea ere badute, hau da, jatetxe txiki bat». (DRT, 2023)

«—Bai, bai, dena, gu, adibidez..., orain korua desegin da erreleborik ez dagoelako, eta... nahigabe ikaragarria dut bihotzean. Baina, ez, gazteek ezetz, ezetz, ezetz... Eta nik: izugarri ongi pasatzen dugu eta.

—Baina gazteak..., 60 urteko gazteak, e?

—Bai, bai, baina esaten diet, izugarri ongi pasatzen dugu... Eta esaten dute, bueno, ez dakit zer, badakit zer. Noski, nik esaten dudana bezala, oraindik adin onean daude

---

handik eta hemendik ibiltzeko, leku guztietatik, noski, ongi ibil zaitezkeenean aprobeztatzen ez baduzu... Hori neuk ere egin dut, jakina. Kar-kar. Eta niri pena izugarria ematen dit, izugarria, izugarria». (DRA, 2023)

«Jarduera ez zen oso formala, eta, bueno, une honetan bideak ikasten eta proiektua garatzeko ahaleginean ari gara (...) Hortaz, guk uste dugu hori ez dela nahikoa; hau da, Udalak, orain arte, bazkariren eta txangoren bat egin izan du, eta denok alai eta pozik, baina ez da nahikoa. E, guri dinamizatzea eta garatzen saiatzea dagokigu, bueno, ba orain bide bat irekitzen ari gara Aldundiarekin, horrelako gauzak eta kontuak probatzen, eta, halaber, Udalaren kuxari erasotzeko ahaleginean. Eta, bueno, hor gabiltza». (DRB, 2023)

«—...eta konturatzen naiz puntu jakin batzuetan baino ez dutela parte hartzen. Ni, adibidez, gaizki jokatzen ari naiz, afiliatu bat edo nire etxean edo zuenean, Gasteizko Las Cuatro Torres elkartean afiliatu nahi duen bat etortzen denean, izena, NANA eta nortasun agiriaren tamainako argazkia eskatzen zaio, eta 13 euro ordaindu behar ditu. Eta ni aspalditik nabil mila buelta ematen, eta uste dut horren barruan informazio gehigarria sartu beharko genukeela. Zer esan nahi dut? Zu zer izan zara bizitzan? Paperezko txoritxoak egin dituzu astialdian. Tira, paperezko txoritxoak egiten ditu, eta gero norbaitek arduratu behar du pertsona horien bila joateaz, aktiboak baitira oraindik...». (DRA, 2023)

«—Eta gero, bazkarian dantza badago, primeran. Baina nik berriz diot, eraldatu egin behar dugu.  
—Pentsamolde hori ere aldatu beharra dago». (DRA, 2023)

«—Orduan, jakina, jende askok pentsamolde hori duenez gero, zera dago, “nik ez dut kartetan jokatzen, nik ez dut nahi, ez...”. Beraz, batzuei ez zaie iruditzen... begira, bihar bertan hitzaldi bat, tailer bat dugu hemen. Orduan, ea, iruditzen zaie kartetan jokatzea baino ez dagoela, ezta? Gauza gehiago daude.  
(...)

—Ez, baina... kartetan jokatu daiteke, nik ulertzen dut, biltzeko lekua da eta primeran iruditzen zait kartetan jokatzea. Gertatzen dena da gero gainerako gauzetan parte hartu behar dela». (DRA, 2023)

«—Kontua da izena, adinekoen zentroa edo zahar etxea, ez dela egoki. Adinekoen etxe hori, etxe hori..., etxea nire etxea da.  
—Bai.

—Eta, ongi, zahar etxea adinekoen etxea ere bada, baina ez dakit, hitz horrek ez dakit erabat... baina tira. Ea, beti bezala, tradizioz esan dezagun, edo uste dut, partida jokatu ahal izateko lekua izan dela. Esaten ari zarena». (DRA, 2023)

«Nik txantxa bat egingo dut, e. Besterik gabe, batzordeak aldatu beharko lirateke,

---

nik 12 urte baitaramatzat, edo 13... 13. Batez ere, aldaketa hori ondo egongo litzateke jende berriarekin, eta gero etorriko lirateke beste aldaketa horiek seguruenik. [elkarrizketa gainjarriak] Ai, Luisek ere urte asko daramatza, eta hemen dauden beste batzuek ere asko... 13 urte». (DRG, 2023)

«Tira, ikusten dugu zerbait egin behar dela belaunaldi berriak konprometitu daitezen.  
—Erakartzeko ere bai...  
—Erakarri egin behar dira nola edo hala, ez dakit nola». (DRG, 2023)

«—Izan ere, beti joan izan dira, hau da, orain ari naiz zehazki, beti joan izan dira partida jokatzera.  
—Noski.  
—*Moderatzailea: Partida jokatzera?*  
—Beti.  
—Tradizioz.  
—Bai.  
—Eta guk zirikatatu egin ditugu karten kontuarekin, eta...  
—Eta istilua sortu da.  
—Istilua sortu da». (DRA, 2023)

